

**Gida didaktikoa
Zinemaren eta Giza Eskubideen Gelak**

ON THE LINE

Koordinazioa: Zinhezba Kultur Elkartea

Egileak:

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

1. Zinema eta giza eskubideak 1. orria
1.1 Hitzaurrea
1.2 Giza eskubideak

2. Zinema eta giza eskubideei buruzko eskolak 6. orria
2.1. Sarrera
2.2 Hezkuntza-xedea
2.3 Adinak
2.4 Zeharkako hezkuntza
2.5 Gidaren egitura

3. Egoeraren azterketa 10. orria
3.1 Zer dira armak?
3.2 Hezkuntza eta militarismoa
3.3 Mexikarren migrazioa Estatu Batuetara
3.4 Artikulua: "Legez kontrakoehiza"

4.  Irudietan murgiltzea: Filmeko balioespena 29. orria
4.1 Laburmetraia
4.2 Dokumental faltsua
4.3 Fitxa teknikoa eta sinopsia
4.4 Laburmetraiaren une garrantzitsuak
4.4 Zinema hiztegia

5. Zinema, Giza eskubideak eta Hezkuntza. Proposamen didaktikoak 36. orria
5.1 Zergatik hezkuntza eta giza eskubideak
5.2 Metodologia
5.3 Unitate didaktikoa

6. Egizu zerbait 56. orria

7. Gehiago jakiteko 58. orria

8. Peters-en mapa 76. orria



Harremanetan jartzeko: Zinhezba
Programa Zuzendariak:
Helena González
Nieves Prieto

Tel.: 945 278 676
zinhezba@yahoo.es

1. Zinema eta Giza Eskubideak

1.1 Hitzaurrea

Zinemari eta giza eskubideei buruzko gela hauetan parte hartuko duten haur eta gazte gehienek azkenaldian zinera joateko aukera izango zuten edo, gutxienez, beren film gogokoenen DVDren bat etxean ikusteko aukera izango zuten. Zineen karteldegiek proposamenen aukera eskaintzen digute generoei eta tematikei dagokienez, arrazoi komertzialengatik gehienak iparramerikarrek ekoitzirikoak badira ere, "entertainment industry" deituriko arloan nagusi baitira, hots, "entretanimenduaren industrian".

Irabazi-asmorik gabeko elkarteak dugu Zinhezba; neska-mutilen artean ezaguna eta ohikoa da, eta ikus-entzunezko euskarri bihurtzeko ideiarekin sortu zen, zine-areto gehienek ahaztuta duten genero batera hurbiltzeko gune izateko: Giza Eskubideen Zinema, entretenitzeko errealitatez gain gogoeta egiteko errealitateak ere eskaintzen dizkiguna. Uste dugu ondo dagoela tarteka zinera dibertitzera eta ebaditzera joatea, baina beharrezkoa da, halaber, istorio eta problematikei aurrez aurre begiratzea, urrunekoak izanagatik ere gero eta gehiago hartzen baikaituzte eraginpean mundu globalizatu honetan. Ahalegin txiki bat eskaintzen dugu aldatzen ari den eta bertako kide garen mundu hori ulertu eta hobeto ezagutzeko.

Zinema arma boteretsua da horretarako: mugimenduan dagoen argia gure erretinatik sartzten da gure garunera, emozioa eraginez eta gure imajinarioan beste errealitate bat finkatuz. Ikus-entzunezko bitartekoek, ezaugarritzat dituzten hizkuntza motak tarteko, gaitasunak estimulatu dituzte globalizatzeko, sintetizatzeko, harremanak ezartzeko eta informazioak prozesatzeko, eta ikasteko beste bide baten garapena dakar horrek. Ikasleak, gero eta neurri handiagoan gainera, sozializatu egiten dira ikus-entzunezkoen eta informatikaren arloko bitarteko eta teknologien bidez, sarritan indarkeriazko edukiak biltzen dituztenak. Kontzientzia kritikoa sortzea beharrezko erreminta gertatzen zaie jasan behar dituzten irudi negatiboen bonbardaketa etengabetik babesteko.

Hori horrela, giza eskubideetan oinarrituriko hezkuntza (GEH) bultzatzen dugu, hots, prozesu bat, horren bidez pertsonak beren eskubideei buruz eta besteen eskubideei buruz ikas dezaten, ikaskuntza interaktibo eta parte-hartzaile baten esparruan. Giza Eskubideetan oinarrituriko Hezkuntzak jarreraren eta jokabideen aldaketa du aztergai, baita jakintzen eta informazioaren trukearen sustapena ere, eta hori guztia bakearen aldeko kultura batera bideratuta.

Komunikabideei esker iristen zaizkigun informazioek mundu osoan eskubide horiek izaten dituzten etengabeko urraketei buruz ohartarazten digute, mundu horrek blokeatu egiten baikaitu sarritan. Informazio zatikatu eta berehalako horren aurrean, giza eskubideetan oinarrituriko prestakuntza sakona proposatzen dugu, prestakuntza horren garrantziaz kontzientziatu eta ekintzarako motibatuzko, gizarte-sektore guztiak inplikatu hori aldarrikatzeko: hezitzaileak, gurasoak, gazteak, juristak, artistak, gizarte-hezitzaileak, sindikalistak: Giza eskubideak guztientzat dira eta guztien artean defendatzekoak dira.

1.2 Giza eskubideak

Justiziazko gutxieneko eskakizun moralak

Giza eskubideak edozein gizakik gizaki izateagatik galda ditzakeen oinarritzko eskakizunak dira, eta eskakizun horiek ezinbestean bete beharrekoak dira, gizaki moduan garatzeko oinarri-oinarritzko premiak edo beharrianak direlako. Funtsezko eskubide horiek gabe nekez egin daiteke bizimodu duin bat. Gizakiarentzat hain beharrezkoak direnez, honela izendatzen ditugu:

- **Unibertsalak:** gizaki guztiei aitortu behar zaizkie, inor baztertu gabe. Gizaki guztiei gizaki direla aitortuz bermatu behar zaizkien gutxieneko eskakizunak dira.
- **Lehentasunezkoak:** beste eskubide batzuekin gatazka sortuz gero lehentasunez babestu behar direlako.
- **Negoziatu ezinezkoak:** inongo gizarteak ezin dizkie bere kideei eskubide horiek ukatu. Adibidez, gizarte batek une jakin batean herritar guztien "eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak" betetzeko beharrezko baliabideak ez baditu, ezin du egoera hori besterik gabe onartu, gauzak aldatzea ezinezkoa dela argudiatuta; aitzitik, ahalegin guztiak egin behar ditu beharrezko baliabide guztiak lortzeko eta banatzeko, guztiak beren eskubideak erabiltzeko modua izan dezaten.

Gainera, gizarte guztiak lagundu behar lukete mundu osoan gizaki guztien eskubideak errespetatu daitezkeen, beren gizarte edo herrialdea edozein dela ere.

Hitz gutxitan esanda, giza eskubideak JUSTIZIAZKO GUTXIENENKO ESKAKIZUN MORALAK dira, eta eskakizun horiek bete egin behar dira, horiek gabe ezin baita bidezko gizarte bat eta bake eta armoniazko mundu bat eraiki.

Giza eskubideen belaunaldiak

Giza eskubideak pixkana-pixkana aitortu eta onartu dira historia zehar, oraindik amaitu ez den ikaskuntza moraleko prozesu baten bitartez. Prozesu horretan bereiz ditzakegun hiru aldi edo aro nagusiei giza eskubideen "hiru belaunaldiak" esaten diegu.

- **Lehen belaunaldia: Askatasunerako eskubideak**

"Lehenengo belaunaldia" eskubide zibil eta politikoena da. XVI. mendearen hasieratik burgesia Antzinako Erregimenari aurre egin eta honako eskubideak aldarrikatzen hasi zen: bizirako eta segurtasun fisikorako eskubidea, pentsatzeko eta iritzia askatasunez adierazteko eskubidea, norberaren herriko gobernuan parte hartzeko eskubidea, legezko arrazoirik gabe atxilotua ez izateko eskubidea, inpartzialtasun-bermeekin epaitua izateko eskubidea, jabetza izateko merkataritzan askatasunez jarduteko eskubidea eta abar. Oro har, esan dezakegu eskubide horiek oinarritzko balio moral bat dutela gidari: askatasuna.

- **Bigarren belaunaldia: berdintasunerako eskubideak**

"Bigarren belaunaldia" eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalari dagokie; adibidez, lanerako eta bidezko soldata izateko eskubidea eta etxebizitza, osasuna, hezkuntza, kultura, erretiro-saria eta abar izateko eskubidea.

Eskubide horiek batez ere langileen mugimenduak aldarrikatu ditu azken mende hauetan. Horien bidez benetako laguntza edo babesa eman nahi zaie lehenengo belaunaldikoei; izan ere, eskubide zibilak eta politikoak nekez erabil daitezke, gutxieneko sarrera ekonomiko batzuk, gaixotasunei aurre egiteko laguntza edo gutxieneko kultura-maila izan ezean. Era horretako eskakizunak onartu ahala pentsamolde berri bat zabaltzen hasi zen; horren arabera, estatuaren eginkizuna ez zen besterik gabe ordena publikoa eta kontratuak betetzea, baizik eta modu positiboan jardutea, lehenengo belaunaldiko eskubideak bakar batzuen mesederako bakarrik izan beharrean denon esku egon zitezten. Horregatik, esaten dugu bigarren belaunaldi horretako eskubideak berdintasunerako eskakizunen multzoan sartzen direla.

- **Hirugarren belaunaldia: Elkartasunerako eskubideak**

“Hirugarren belaunaldiko” eskubideen arabera gizaki guztiek dute eskubidea ingurune osasuntsu batean jaio eta bizitzeko. Kutsadura eta zaratarik gabeko ingurune batean eta bakean dagoen gizarte batean jaio eta bizitzeko eskubidea ere badute. Eskubide horiek ez dira oraindik nazioarteko adierazpen batean jaso, baina aurrekoak bezain funtsezkoa dira: izan ere, kutsatutako ingurune batean edo gerra dagoen leku batean bizi denak nekez erabil ditzake lehenengo eta bigarren belaunaldietako eskubideak.

Nazioarteko elkartasuna funtsezkoa da hirugarren belaunaldiko eskubideak erabili ahal izateko. Nola lor liteke ingurumeneko kutsadura kentzea, herrialde batzuek ez kutsatzeko konpromisoa hartu arren, beste batzuek hartzen ez badute? Nola lor liteke gerrak betiko amaitzea, herrialde guztiek arma-trafikoa kontrolatzeko konpromiso tinkoa hartzen ez badute?



ESKUBIDEAK MUNDUAN ETA TOKI BAKOITZEAN ERRESPEATATZEA

Eskubide zibil eta politikoak

Arlo horretan erdietsi den lorpenik handiena esklabotasuna ezeztatzea izan da, mundu osoan jarduera hori egiteko debekua betetzen den neurrian behintzat. Aipaturiko debekua 1956ko irailaren 7ko nazioarteko hitzarmen baten bidez ezarri zen. Hala ere, gaur egun herrialde askotan oinarrizko eskubideen urraketa sistematikoa eta masiboa da: torturak, desagertzeak, legez kanpoko atxiloketak, presoek tratatu txarrak ematea, emakumeen bazterketa eta abar.

ONUren ahaleginak

Berez, nazioarteko komunitateak hartu behar luke bere gain bortxaketa horiek salatzen eta beharrezko neurri eraginkorrak hartzeko ardura, ONUren bitartez (horren helburu nagusia giza eskubideen babesa eta sustapena baita), oinarrizko askatasunak errespetatzen ez dituzten gobernuek beren jokabidea zuzen dezaten. Baina, jakina, erakunde horrek ezingo du ezertxo ere lortu, baldin eta askatasun horiek errespetatzen dituztela dioten herrialdeek laguntza material eta morala ematen ez badiote. Esperientziak erakusten digunez, nazioarteko erakundeek giza eskubideak errespetatzen ez dituzten gobernuei presioa egitea oso neurri eraginkorra izan daiteke herrialde horiek giza eskubideen arloan beharrezko berrikuntzak egin ditzaten.

Herritarren ekimenak

Oinarrizko askatasunak sendotzeko beren borondatez zerbait egin nahi duten herritarrek gobernu kanpoko erakundeak (GKE) aukeratu ohi dituzte horretarako; adibidez Nazioarteko Amnistia, Nazioarteko Gurutze Gorria edo beste hainbat, erakunde horiek munduko herrialde askotan ari baitira lanean, eskubide horien bortxaketak salatzen eta biktimei laguntzen.

Gosea

Bigarren belaunaldiko eskubideei dagokienez, honako xehetasunak nabarmendu behar dira. Hirugarren Mundua esaten diogun horretan milioika lagun daude bizirik irauteko gauzarik beharrekoenak ere ez dituztenak. Janari falta, sendatzeko moduko gaixotasunak ezin sendatzea eta analfabetismoa dira munduko arazo nagusietako batzuk. Miseria da munduan gertatzen diren heriotzen arrazoi nagusia, nahiz eta, teknikoki, denon gutxieneko premiak betetzeko aukerak egon. Baina arazoa morala da, ez teknikoa. Azken batean, gizakien arteko elkartasun-ezagatik gertatzen da hori.

Lan-baldintza ezin txarragoak

Gaur egun herrialde askotan badira pertsona asko eta asko, tartean ume ugari, lan-baldintza guztiz osasungaitzetan lan egin behar izaten dutenak, egunean hamabi ordu edo gehiago sartuz, gizarte-segurantzarik edo langabeziarako laguntzarik gabe, eta ia-ia batere eskubide sindikalik gabe. Herrialde aberatsek ez dute hori gertatzeko eragozpenik jartzen, haien enpresak berak baitira herrialde horietan eskulan merkea eta erraza aurkitzen dutenak. Herrialde aberatsetako sindikatuek bai, protesta egiten dute, besteak beste era horretako lanak hartzeak Lehen Munduan lanpostu askoren galera sortzen duelako. Ginebran (Suedia) egoitza duen Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE) ONUren gidaritzapean ari da lanean era horretako arazoei irtenbidea bilatzeko. Hala ere, erakunde horretako herrialdeak arazo horiek konpontzeko beharrezko erabateko jabetzen ez badira, erakunde horrek bakarrik ezer gutxi egin ahal izango du.

Bakea eta oreka ekologikoa: premia-premiazkoa da elkartasunezko irtenbide bat bilatzea hirugarren belaunaldiko eskubideei dagokienez; salatu beharra dago herrialde aberatsenetako gobernuek ez dutela erabateko konpromisoa hartu kutsadura eta arma-trafikoa kontrolatzeko. Hori dela-eta, enpresa handiek kutsadura sortzen jarraitzen dute eta herrialde pobreetako gerra-gatazketan ari direnek erraz asko aurki ditzakete gerran jarraitzeko behar dituzten armak. Hala eta guztiz ere, ONUren agentzia batzuk eta GKE ugari sekulako ahalegina egiten ari dira natur ingurunea babesteko (ADENA, Greenpeace eta abar) eta beste erakunde batzuk gerra dagoen lekuetatik ihesi doazen errefuxiatuek arduratzen dira (ACNUR, Mugarik gabeko Medikuek, Munduko Medikuek eta abar)

Giza eskubideen aldeko ekintza

- Geure ingurunean

Batzuetan gu geu gara inguruan ditugun pertsonen eskubideak urratzen ditugunak, edo isildu egiten gara beste batzuek hori gure aurrean egiten dutenean. Badira etxekoandre batzuk beren familiako gainerako kideen mespretxua eta ia-ia esklabotasuna jasan behar dutenak. Ume batzuek beren ikaskideen bazterketa eta tratu txarrak jasan behar izaten dituzte. Batzuetan pertsona batzuei utzi egiten diegu eskolako materiala edo beste norbaitenak diren gauzak hondatzen, bidegabekeria bat egiten ari garela pentsatu gabe. Beste batzuetan, berriz, ingurumena zaborrez, zarataz edo kez kutsatzen dugu eta ez gara ohartzen denon eskubideen aurkako zerbait egiten ari garela. Hitz gutxitan, giza eskubideak defendatzeko lehenengo guk geuk errespetatu behar ditugu, gure ingurunean bertan, eta geure buruari galdetu ze bidegabekeria egiten edo onartzen ditugun eta zer egin behar dugun egoera hori nolabait hobetzeko.

Giza eskubideen aldeko ekintzarako jardunbide orokorrak

Giza eskubideak gure ingurunean bete daitezzen erne egoteaz gainera, horiek estatuan eta nazioartean sustatzeko egin litezkeen lanetako batzuk adierazi nahi dizkizuegu jarraian:

1. Horien berri ematea: pertsona guztiei ezagutaraztea, beraiek aldarrika ditzaten, eta eskubideak babesten laguntzea.
2. Agintariei eta partikularrei horiek betetzeko exijitzea, horretarako dauden legezko bide guztiak erabiliz: protesta-gutunak, sinadura-bilketa, manifestazioak eta abar.
3. Elkarrekin sortu eta horien alde lanean ari diren boluntarioen erakundeetan parte hartzea (ikusi aurkibideko 6. puntua).



Paolo Pellegrin / SABA

2. Zinema eta giza eskubideei buruzko eskolak

ZINHEZBA irabazteko asmorik gabeko elkarte da eta zinema, hezkuntza eta bakea bultzatzen ditu.

ZINE, HEZKUNTZA eta BAKEA

Aurreko bi urteetan bezalaxe aurten ere Zinema eta Giza Eskubideei buruzko Eskolak egingo ditugu Euskadiko hainbat eskoletan; orain arte 5.600 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute.



Hezkuntza-xedea

Zinema-eskolen helburua pertsonen funtsezko eskubideetan sakontzea da, balioetan heziz, eta horri begira ikus-entzunezko baliabidea hori erabiltzen dugu desberdintasun-egoerei buruzko jarrera kritikoa sustatzeko.

Alde horretatik, gure helburua da beste gizarte eta kulturei buruzko ikuspegi-eremua zabaltzea, desberdintasun guztiak errespetatzeko: sexua, arraza, iritzia, erlijioa eta premiak; giza eskubideen urraketak identifikatzen ikastea eta sufritzen dutenenganako elkartasuna sustatzea; ingurune hurbilean eta hortik kanpo irtenbideak bilatzeko lanean sakontzea eta gizartearen aldatzeko jarrera aktiboa sustatzea.

Honako hau ere egin nahi dugu....

1. Pertsonen funtsezko eskubideetan sakontzea, balioetan oinarritutako hezkuntzaren bidez.
2. Ikus-entzunezko baliabideei buruzko jarrera kritikoa garatzea, irudia ezagupenen unibertsoan txertatu ahal izateko.
3. Zinema-hizkuntza hobeto ezagutzea, sentsibilizazioa eta kontzientziazioa lortu ahal izateko bere adierazpen-baliabideak erakutsiz.
4. Beste gizarte eta kulturei buruzko ikuspegi-eremua zabaltzea, desberdin denari errespetua izateko.

5. Giza eskubideen bortxaketak identifikatzea dagokien eremu guztietan eta sufritzen dutenenganako elkartasuna bultzatzea.
6. Eskubideak eta eskubide-urratzeak bereiztea, eta horretarako munduko eta estatuetako dokumentu eta adierazpen unibertsalak erabiltzea.
7. Giza eskubideen aldeko jarrera positiboak erakusten dituzten albisteak eta informazioak aurkitzea.
8. Leku bakoitzean eta munduan aukera litezkeen irtenbideak hobeto ezagutzea eta ekintza bultzatzea, ikasleen partaidetzaren bitartez.
9. Informazioa emateko hizkuntza eta adierazpideak aztertzea: prentsa, komikiak, zinema, erreportajeak... pertsonen eskubideak urratzea aztergai hartuta.
10. Pertsoneri errespetu handiagoa izatea, beren adina, sexua, arraza, iritzia, premia eta kultura edozein dela ere.

Adinak

Zinema-eskolak 8 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat eginak dira. Urteko programazioa adin-talde bakoitzarentzat egokitzen dugu, honako multzoak osatuz:

- 8 eta 12 urte artekoak
- 12 eta 16 urte artekoak
- 14 eta 18 urte artekoak
- 16 eta 18 urte artekoak



Zeharkako hezkuntza

Eskola hauetarako giza eskubideekin zerikusia duten hainbat gai proposatzen ditugu; era horretan, irakasleek, hezitzaileek eta ikastetxeetako kideek edukiak gelan landu eta zentroaren proiektuan zeharka sartu ahal izango dituzte irakasgai desberdinen bitartez.

Filma ikusi ondoren (euskaraz eta gaztelaniaz) gizarte-hezkuntzako tailer bat egingo dugu gogoeta pertsonal eta kolektiboa egiteko; horren osagarri gida didaktikoa prestatu dugu, irakasleek edukiak ikasgelan lantzen jarraitzeko modua izan dezazuen.

Gidaren egitura

Proposamenaren irizpide orokorra filmari buruzko galdera egokiak egiten jakitea da, ematen digun informazio-mota behar bezala balioesteko eta aztertutako arazoei dagokienez duen ikuspegia zehazteko.

Gida didaktikoa filma du abiapuntu eta elkarren osagarri diren 5 atal ditu, era honetan antolatuta:

- Lehenengo atalean zinema, hezkuntza eta giza eskubideak lotzen ditu ZINHEZBAren proposamenaren bidez.
- Bigarren atalean azterketa sozial, politiko, kultural edo ekonomikoa egiten da, landu beharreko gaiaren arabera, eta hori hezkuntzarako erreferentzia-material gisa erabiliko da.

- Hirugarren atalean, hezkuntzaren eta giza eskubideen arteko lokarri den filmaren beraren azterketa egiten da, eta ikus-entzunezko baliabidea hezkuntza-tresna gisa erabiltzen da. Giza eskubideen inguruko gai batzuk lantzeko aukera emango dizueten funtsezko ideiak ateratzen dira. Atal horretan ikus-entzunezko baliabide horri buruzko oinarrizko glosategi bat aurkituko duzue.
- Laugarren atalean jardueretarako proposamen bat egiten dizuegu; helburu zehatzak, aztertu beharreko kontzeptuak, erabili beharreko jardunbideak eta haur eta gazteengan sustatu beharreko jarrerak azaltzen dizkizuegu; aldez aurretik garbi utzi behar dugu horiek ez direla baliabide berriak, ikasgelan zuen pedagogia-lanerako lagungarri izan daitezkeen jarduera eta iturriak baizik, eta aurrerantzean ere jarraipena izan beharko dutela. Oso garrantzitsua da eskolako hezkuntza-komunitate guztiak bere konpromiso pedagogikoaren bidez Giza Eskubideak defendatzea.
- Gidaren azken atalean bertako gaiak aztertzeko oso baliagarriak iruditzen zaizkigun baliabide batzuk azaltzen dizkizuegu, taldearen jarduerak bere premien arabera egokitu ditzazuen.

3. Egoeraren azterketa:

3.1. Zer dira armak?

3.2. Hezkuntza eta militarismoa

3.3. Mexikarren migrazioa Estatu Batuetara

3.4. Artikulua: "Legez kontrakoan ehiza"

3.1. Zer dira armak?

Armek ondorio gaiztoak dituzte gizarteentzat; izan ere, garapena mugatzen dute, eta ez dute ekarpen ekonomikorik eragiten: armadak eta armen industriadako bideratzen diren baliabide guztiak industria zibilera joango balira, garapen gizatiar eta sozial handiagoa sustatuko lukete.

Gainera, armak Iparreko eta Hegoko herrialdeen arteko desberdintasun eta desoreken arrazoi nagusienetakoa da, Hirugarren Munduaren pobrezia areagotzen dute, Iparreko armak Hegoko herrialdeetara esportatzeak zorra eragiten dielako.

Benetan, esaten den bezain beste arma al da munduan? Beharrezkoak al dira?

Bi motako armak daude: nuklearrak eta ez nuklearrak. Arma ez nuklearren artean, bestalde, konbentzionalak (suntsipen handikoak ez diren guztiak) eta biologiko eta kimikoak bereizten dira.

Mundu zabalean dauden arma gehienak ez nuklearrak dira. Are gehiago, munduko gastu militarren lau bostenak arma konbentzionaletan eta armadak onik zaintzen erabiltzen dira. Hona armen neurritz gainera pilaketak sortzen duen segurtasun ezaren adibide bat: Gerra Hotzaren amaieratik hona 87 gatazka armatu piztu dira munduan, zeinetan zazpi milioi pertsona baino gehiago hil den, horietatik % 90 zibilak. Gerra horietan Iparreko herrialdeetan egindako armak erabili izan dira.

Zenbat balio du egoera honi eusteak?

Munduko gastu militarren zenbatekoa ikaragarria da. Hara, 18 bider gainditzen du herrialde ekonomikoki garatuek Hirugarren Munduaren garapenean laguntzeko ematen dutena; 7 bider gainditzen du Hegoko herrialdeei zerbitzu gisa (interes eta amortizazioak) eskaintzen zaizkien ordainketak.

Nola eragiten du ekonomian armen ekoizpenak?

Ez da gauza erraza zer nolako ondasun mota diren armak zehaztea. Ez dira kontsumo-ondasunak (zapatak, elikagaiak, etab...), ezta ekoizpen-ondasunak ere (traktoreak, makinak, ekipamendua, etab.). Ikuspegi erabat ekonomiko batetik begiratuta, ondasun antzuak dira, ez emankorrak: ez dute balio ekonomikorik sortzen, nahiz eta kostu handia eskatzen duten; baliabide baliotsu ugari kontsumitzen ditu armen ekoizpenak (batzuk, gainera, ez berriztagarriak), beste balizko erabilera batzuetatik desbideratu ondoren.

Armak segurtasuneko eta babesteko ondasunak direla esan daiteke. Alabaina, nor defendatzen dute? Norengandik? Nola? Nork eta noiz erabaki ditu babes-lehentasunak? Nork eta nola definitu ditu mehatxuak?

Bestalde, inbertsio militarren eragin negatiboak (aukera-kostuak) ahuldu egiten dituzte epe luzera herrialde garatuak. Hirugarren Munduko kasuan berriz, eraginak suntsitzaileak dira epe labur eta ertainean. Frogatuta dago herrialde horientzako hondamendirako bidea dela armagintza; izan ere, garapen bidean dauden herrialdeen beharrak oso bestelakoak dira: inbertsio produktiboak, lan-indarra hezteak, osasun zerbitzuak hobetzeak, komunikazio eta garraio sistemak, ekipamendu gehiago eta hobea, etab... Oinarritzko behar horietara joango liratekeen baliabideak armagintzarako desbideratzeak herrialdeko ekonomiaren kalterako bidea hautatzea da.

Espainia ez da salbuespen, hemen ere armagintzaren ondorio ekonomikoak negatiboak dira epe ertain eta luzean.

Egin al daiteke babes-politika hertsiki defentsazkoa? Kostu txikiagoa izango ote luke?

Armen ikerkuntza eta ekoizpenak dinamika berezi baten arabera funtzionatzen du, merkataritza-irizpideak jarraituz. Horrek esan nahi du ikuspegi hertsiki defentsazko batetik (hau da, ikuspegi interbentzionista oro alboratuta), beharrezko ez diren armak ekoizten dira. Beste era batera esanda, armak ez dira horrenbeste nazio-interesari erantzunez ekoizten, sektoreko enpresen probetxu ekonomikoko arrazoientzat baizik. Batzuetan nazio-interesek bat egiten dute enpresarien edo militarren eta industriaren interesekin.

Espainiako gobernuak kontrako bidea hautatu du: proiektu nazionalen eta nazioarteko bitartez era guztietako arma konbentzionalak ekoiztea, batzuk beharrezkoak ez diren arren, esaterako Europar Ehiza Hegazkina (Eurofighter 2000), Tigre helikopteroak, F-100 fragatak, Leopardo blindatuak, Garraio Militarrerako Hegazkinak (A-400 M)... Horiek guztiak erasotzeko armak dira, gerra beste leku batzuetara eramateko asmoz eginak. Azalpena oso erraza da: berrarmatzean eta indar militarrean oinarritutako segurtasun-politikaren alde apustua egin da; horrek -eta ez interes nazionalak- bertoko industria militarra indartzea eskatzen du.

Beharrezkoa al da industria militar indartsua izatea kanpo-mendekotasuna saihesteko?

Esan izan ohi da arma-industria autoktonoa izateak beste herrialde batzuei erosi beharra murriztea ahalbidetu, eta autosufizientzia bermatzen duela. Baina ez da esaten herrialde jakin baten arma-beharrak hautatu duen defentsa-ereduaren, edo/eta parte hartzen duen aliantzen mende daudela.

Espainiak nahitaez arma-sistema ugari inportatzea eskatzen duen ereduak hautatu du, nahiz eta epe ertainean murriztu litezkeen nazioartean hainbat estaturen artean armak elkarrekin ekoizteko akordioekin eta bertoko armagintzaren bitartez. Beste behin ere esan behar da, baldin eta defentsa politika ez probokatzailerik hautatu izan balitz, arma horietako asko ez liratekeela beharrezkoak.

Gainera, herrialde jakin baten independentzia ez da oinarritzen soilik arma kontuetan duen autosufizientzian. Gutxienez herrialde garatuetan ez da inbasio militarrik ohi gure garaiotan, askoz eraginkorragoak dira beste barrentze-bide batzuk: ekonomikoa, kulturala, finantzarioa, etab.

Sortzen al du lanposturik armagintzak?

Nazio Batuek egindako txosten jakin batzuen arabera, armagintzan inbertitzen den dirutzak lanpostu gehiago sortuko luke beste sektoreen batera bideratuz gero, armagintzak berezkoa duen espezializazio maila handia murriztuko lukeelako. Baina, azter dezagun propio Espainiako errealitatea:

Armagintzan diharduten industrien hazkuntza desorekatua izan da, eta horrela da orain ere. Enpresa batzuen salmenta eta esportazioak nabarmen hazi diren artean, beste batzuek defizit handiak izan dituzte, eta berregituraketa sakonei aurre egin beharrean daude. Joera nagusia kapital intentsiboko enpresak (eskulan gutxikoak) sustatzearen aldeko da. Laburbilduz, teknologia militarrek ez soilik ez du lanposturik sortzen; gainera urritu egiten ditu. Gainera, inbertsio berberak lanpostu gehiago sortuko luke beste sektoreen batean balitz.

Saihestezina al da armen esportazioa?

Ez derrigorrez. Kontua da herrialde jakin bateko armagintzak zein irizpideri jarraitzen dion jakitea: segurtasun arrazoiengatik ekoizten dituen armak, edo esportatzeko asmoz. Alabaina, adierazpen ofizialak isatsari hozka egiten dion arrainaren parekoak dira, hara: arma-industriak babes-gaitasuna bermatzen du; gaur egungo armagintzaren prezioak kontuan hartuz gero, industriaren bideragritasunak ekoizpena areagotzea eskatzen du, kostuak jaitsi ahal izateko; neurriz gaineko ekoizpenak esportazioa eskatzen du.

Enpresa batzuk esportazioari begira sortu dira, eta beste batzuk barne-merkatua asetzeko asmoz. Herrialde jakin batzuetan ekoizpenaren laurdena edo bostena esportatzen da asko jota, Alemania eta Suedia kasu; aldiz, beste muturrean da –beste batzuekin batera– Italia, non ekoizpenaren % 70 esportatzen den. Espainiak, Frantziaren eta Britainia Handiaren antzera, ekoizpenaren % 40-50 inguru esportatzen du; horrek esan nahi du arma asko kanpora saltzeko asmoz sortzen dituela.



Armen esportazioak ba al du zerikusirik irizpide politikoekin?

Esportazioa kostuak urritzearen eta ikerketa eta garapen eremuetan egindako ahaleginari errentagarritasuna ateratzearen beharraren bitartez justifikatzea, arma-industriaren izaera politikoa alboratu eta ahaztea da.

Arma-industriak gobernuen babesa eta sustapena jasotzen du nonahi; diru eta bestelako laguntzak ematen zaizkio nonahi; esportazioei buruzko legedi eta araudiak daude nonahi. Ez gara ari industriaren sektore arrunt bati buruz; honakoan, beti eta edonon, Estatuak izaten ohi da ekoizpenaren erosle nagusien eta, sarritan, bakarra.

Ezinezkoa da aldi berean aurrez aurre dauden bi diskurtsori eustea: bata "nazioaren segurtasun arrazoiengatik armak eduki beharra" azpimarratzen du, prezioa kontuan hartu gabe, segurtasunak preziorik ez omen duen onura delakoan; bestea, aldiz, "nazio-merkatua, bere bakarrean, ez dela inoiz armagintzak eskatzen dituen inbertsio handiak justifikatzeko gauza izango" aldarrikatzen du. Argudio biak aldi bereko egi gisa hartu nahiak indargabetu egiten ditu bata eta bestea. Edonola ere, kostuei errentagarritasuna ateratzeko armak esportatzeak ez ditu diktaturak, Giza Eskubideak urratzen dituzten herrialdeak eta gerran dauden herrialdeak armak saltzearen erantzukizun politikotik libre uzten, ez enpresa, ez agintari ezta herritarrak ere.

Kontrolatu al daiteke arma-merkataritza nazioartean hitzarmenen bidez?

Teorian bai. Herrialde hornitzaileek hitzarmenak egin ditzakete elkarren artean salerosketen bolumena murrizteko, arma-mota jakin batzuk merkatutik ateratzeko, edo herrialde jakin batzuei ez saltzeko.

Alabaina, era horretako saio gutxi egin izan da, eta arrakasta eskasa izan dute. Nazio Batuen Erakundeak hartutako zenbait hitzarmenetan oinarrituta, mugak eta kontrolak jar daitezke; nazioarteko erakundeek zenbaitetan arma-blokeoa ezarri izan dute. Nazio Batuei dagokienez, erakunde horrek burutapen eta asmo ugari izan ditu. 1978an, Desarmeari buruzko I Saio Berezia zela eta, estatu kide guztiek zin egin zuten herrialde erosle eta hornitzaileek elkarrizketak hasiko zituztela arma konbentzionalen salerosketak murrizteko asmoz.

Beraz, nazioarteko hitzarmenak, bilatu behar diren arren, ez dute emaitza onik eman izan, hainbat arrazoi tarteko: salerosketei buruz datu argi eta herrialde guztiek onetsiko dituztenen gabezia, jokoan sartzen diren interes politiko eta ekonomiko ugari eta anitzak, burujabetasunaren eta enpresa librearen aldeko gobernu eta enpresen aldarrikapenak.

Beraz, nahitaezko bihurtzen da Estatuak armen ekoizpen- eta esportazio-jarduerak kontrolpean izatea.

Kontrolpean izan al ditzake herrialde jakin batek armen salerosketa eta esportazioak?

Bai, egin dezake. Jakina, oztopo ekonomiko, tekniko ("arma" terminoak zer esan nahi duen argi zehaztea) eta legalak izan ditzake, baina beste behin ere esan behar dugu egin, egin daitekeela. Herrialde jakin batzuek (Suediak eta Austriak, esate baterako), horrela egin dute, eta esportazioak murrizteko politikak bideratu dituzte. Herrialde horiek interes militar-industrialen presiopean daude.

Herrialde batzuetan armen esportazioa Legebiltzarrean onetsi behar izaten da alde zurretik; esportazioak kontrolatzeko legebiltzar-batzordeak sortzen dira, hiruren arteko operazioak eta gezurrezko hartzaile baten datua adierazita egiten diren ezkutuko esportazioei jarraipena egiteko, eta abar. Zoritxarrez, eta egungo legediari muzin eginez, espainiar politika oso da laxoa, permisiboa.

Ba al da armen merkataritza mugatu dezakeen zeharkako neurririk?

Bai, bada halakorik. Besteak beste:

a) Aurrekontu militarrek murriztea.

b) Aurreztutako baliabideak garapenerako bideratzea (jakina, garapen bidean dauden herrialdeei kamioi militarrek saltzea "garapena" den ideari aurre eginda).

c) Hirugarren Munduko herrialdeekiko arma-salmenta FAD kredituen (Garapenerako Laguntza Funtsak) edota interes txikiko kreditu bignen bitartez bideratzeko aukerak galaraztea.

d) Arma-industriak ondasun sozialki lagungarrien ekoizpen bihurtzeko prozesua abiaraztea.

Zinez, ba al da arma-industria bihurtzerik?

Bai. Ez da gauzatu ezineko promesa. Lehenik eta behin, hainbat herrialdetan bada adibide eta proposamen zehatz eta ondo egituraturik, Gainera, Espainiari begira, eta sindikatuekin batera koordinatutako azterlan zehatzak falta diren bitartean, irizpide orokorrak oso argiak dira:

a) Ordezko produkzioak egungo langileek dituzten trebetasun berberak erabilita ekoizteko modukoa beharko luke.

b) Ordezko produktuak lantoki berberetan ekoiztu beharko lirateke, une honetan dauden lantegi, muntaketa-kate eta baliabide materialak erabiliz, beti ere beharrezko gerta litezkeen berrikuntza eta inbertsioak aintzat hartuta.

c) Produktu berri horiek egingarri eta beharrezkoak izan behar lukete, hau da, herritarrek edo/eta gobernuak eros ditzaketan produktuak.

d) Bihurtze prozesuak planifikazioa, erabakiak hartzea eta gauzatzea molde guztiz eta goitik behera demokratikoen arabera egingo direla eskatuko luke.

Iturria: Centre d'Estudis per la Pau J.M.Delàs - Justícia i Pau:

http://www.centredelas.org/index.php?option=com_content&view=article&id=260&Itemid=78&lang=ca

3.2 Hezkuntza eta militarismoa

“Zerbitzu militarren amaierak militarismoaren inbasioa ohi dakar bizitzaren esparru guztietan (bereziki eskoletan, unibertsitateetan, espazio publikoetan, eta auzo behartsuenean), erreklutamendua handitu asmoz”

Kontzientzia Eragozpenari buruzko Txostena, Gerraren Aurkakoen Nazioartekoa (WRI/IRG). 2008ko maiatza-ekaina

Profesionalizatu zenetik, Espainiako armadak hezkuntza giroetan (formalean eta ez formalean) sartzeko kanpaina egin du. Espainiako indar armatuak irudi positiboa hedatzeko darabilzkiten propaganda-teknikak aldatu egin dira urteak joan ahala. Derrigorrezko zerbitzu militarra desagertu zenetik teknika horiek beste eremu batzuetara bideratu dituzte –esaterako hezkuntzara–, eta ordura arte ez bezalako hartzaileengana zuzendu –haurrak, gazteak–. Armadek zereginen dibertsifikaziora jo dute, eta ondorioz, orain artean esparru guztiz zibilak (hala nola ikerkuntza zientifikoa, edota gizaldeko ekintza) militarizatuta daude gaur egun.

Urte batzuetatik hona, armadak aldatu egin du bere irudia, eta bakeaz, defentsaz, elkartasunaz eta segurtasunaz diharduen diskurtsoa bereganatu du. Berezko du hori guztia Garapenerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzak ezaugarri dituen elkartasunaren kulturari kontrajartzen zaion defentsa-kulturak. Hartara, militarrek GKEen berezko eremuetan sartu dira... baita ere hezkuntza-esparruetan ere!

Hori guztia dela eta, gizarte zibilak aurre egin behar lieke galdera hauei:

- Zein alde dago armadaren eta GKEen zereginen artean?
- Aritu al daitezke indar armatuak gizaldeko ekintzetan? Etikoa al da laguntza humanitarioan eta lankidetzazkoan aritzea lepotik metraileta zintzilik daramatela (muturrera joanda, ustez defendatzera joandako herrialde horietan beraietan arma-saltze negoziotan aritzeak dakarren kontraesan itzelaz hitz egin daiteke)? Zer nolako baloreak transmititzen ditu horrek guzti horrek?
- Zer nolako hezkuntza-baloreak transmititzen dituzte? Zeintzuk dira armadaren zeregin “humanitario eta elkartasunezkoen” atzean ezkututzen diren benetako interesak?
- Zer nolako Herritartasunerako Hezkuntza transmititzen du Atzerri Arazoetako Ministerioak eta Defentsa Ministerioak bedekaturako defentsa-kultura horrek?

Gure ustetan, armadaren presentzia hezkuntza-eremuetan ez da onargarria, honako arrazoiengatik:

- Erakunde militarrek transmititzen dituzten baloreak (obedientzia, diziplina, patriarkatua, androzentrismoa, indarkeria baliabide gisa, etab.) gazteen hezkuntza gidatu behar lituzketenen aurka daude: autonomia, izaera kritikoa, erantzukizuna, enpatia, elkarrizketa, elkartasuna, etab.
- Armadak ikasleei eskaintzen dien proposamena LOEk (Hezkuntzaren Lege Organikoak) jasotakoaren aurkakoa da. Izan ere, hauxe irakur daiteke LOEren oinarrietan: “Gatazkei aurrea hartzeko eta gatazkak era baketsuan konpontzeko hezkuntza, eta indarkeriarik eza bizitza pertsonalaren, familiaren eta gizartekoaren eremu guztietan”. Eta hauxe LOEren helburuen artean: Bakerako, giza eskubideekiko errespeturako, elkarbizitzarako, gizarte kohesiorako, lankidetzarako eta herrien arteko elkartasunerako prestatzea”.

- Hezkuntza-eremuetan sartzean, Espainiako armadak "espiritu militarra" eta eufemistikoki deitutako "Defentsa-kultura" sustatu nahi ditu gazteen artean, bere irudi txarra eta erreklutamendurako egun dituen zailtasunak gainditu asmoz.
- Gazteek Defentsa Ministeriotik jasotzen duten publizitatea engainagarria da, irudi idilikoz janzten du bizitza militarra, eta leundu egiten du Espainiako indar armatuek gatazka belikoetan jokatzen duten papera. Armada laguntza humanitariorako GKE gisa aurkezten da, eta horren bidez ezkutatu egiten du beste interes batzuk defendatzeko duen zeregina. Ez dira zehaztazunez azaltzen armadako kide izateak sor ditzakeen ondorioak, inolaz ere.
- Gizakion segurtasuna bestelako adierazleen arabera neurtu beharko litzatekeenean (osasuna, elikadura-segurtasuna, lan aukera, Giza Eskubideen errespetua, ingurumenaren babesa, hezkuntza-eskubidea...), gure gizartearen arazoei aurre egiteko eredu militaristak transmititzea irizpide kontraesankorra eta zaharkitua da.

Beraz, hezkuntza-erakunde eta eragileen zeregina kultura, zientzia eta elkarbizitza eta oniztasunaren baloreak sustatzea den konbentzimenduan oinarrituta, armada eta hezkuntza kontzeptu nabarmenki antagonikoak eta bateraezin direla uste dugu.

Hori dela eta, bakea eta hezkuntza sustatzeko lanari artxikitako hainbat talde eta erakundek **Desmilitariza dezagun hezkuntza** izeneko kanpaina sortu dugu, erakunde militarrek eta beren baloreak hezkuntza-guneetara iristea saihestu asmoz. Kanpaina hezkuntzaren, antimilitarismoaren eta pazifismoaren eremuetan diharduten hainbat talderen ahaleginak batzearen ondorioa da. Gure argudioek hezkuntza desmilitarizatzearen aldeko lanaren bidean neurriak hartzera bultzatuko zaituztela espero dugu.

Dokumentu hau **Desmilitariza dezagun hezkuntza** kanpainaren tresna da, eta honako helburuak ditu: hezkuntza- eta aisialdi-esparruak pixkianaka desmilitarizatzearen aldeko argudioak ematea, gizarteari militarismoa ukatzeko gonbitea egitea, bizitzako eremu guztietan, baina hezkuntzan bereziki. Honako estekan kanpainaren aldeko argudioak, ekintzarako proposamenak eta beste baliabide batzuk aurkituko dituzue: <http://desmilitaritzem.blog.pangea.org>.

Armek ez dute hezten, armek hil egiten dute!

Iturria: <http://desmilitaritzem.blog.pangea.org/>

3.3. Mexikarren migrazioa Estatu Batuetara Caso de “La Patrona”

Mexikarren migrazioa Estatu Batuetara bi gizarte inplikatu dituen fenomeno da, bien garapen historikoaren hainbat une jakinetan gertatu izan da. Fenomeno hori aztertzerakoan, Mexikoko eta Estatu Batuetako egoera zehatzak hartu behar dira aintzat, bai eta bien arteko harremanak une historiko jakin bakoitzean.

Oro har, fenomenoaren jatorriak enpleguaren egoerarekin zerikusi handia duela onartzen da. Auziaren jatorria Mexikoko inguru askotako garapen maila eskasean eta hazteko aukera urrian aurkitu behar da.

Lehenagotik zetorren arazoa: atzerapen ekonomikoak Estatu Batuetako tren-, meatzedo/eta nekazaritza-industriara bultzatze zuten jendea lan bila, bertakoek ez baitzuten lan egiten sektore horietan.

Kontuan hartzekoa da gai hau lehen mailako arazoa dela. Gainera –xehetasun garrantzitsua– dibisak bigarren diru-sarrera iturria dira Mexikon.

3.3.1. MEXIKAR MIGRAZIOEN HASIERA ETA BILAKAERA

1.1 Migrazioen hasiera

Mexikarren Estatutu Batuetarako mugimendua XIX. mendean hasi zen, Estatu Batuek Mexikoko lurraldearen zati bat bereganatzearekin batera. Une horretan muga fisikorik ez zen, eta mexikarrek ez zuten batere oztoporik beste aldera iragaiteko; Mexikoko garraio-bide-sarea handitu zenetik, jendea nahikoa erraz ibil zitekeen harat-honat. Batez ere trenbideari zor zaio Mexikoko erdialdeko goi-lautadatik Estatu Batuetako mugaraino joateko aukera, eta behin hortik, ondoko herrialdearen hegomendebaldera; izan ere, eskualde hori nekazaritzan oinarritutako hazkuntza handia bizitzen hasi zen une horretan. Mexikar emigratzaileek oso paper garrantzitsua jokatu zuten XIX. mendearen azken bi hamarkadetan eta XX.aren bi lehenetako Estatu Batuetako hegomendebaldeko trenbideen eraikuntzan, bereziki Southern Pacific eta Santa Fe enprekoetan. Mexikar jatorriko langileen kopurua guztien arteko % 70eraino ere iritsi zen. Bide nagusiak amaitu ostean ere mexikarrak kontratatzen zituzten bigarren mailako lineak osatzeko, eta bide guzti horiek onik zaintzako eta konponketa lanetarako. Trenbideen eraikuntzak Montana, Wyoming, Utah, Colorado, Idaho, Illinois eta Washingtingo bidean jarri zituen mexikarrak.

Hiru elementuk bihurtu zuten Estatu Batuetako hegomendebaldea herrialdearen hornitzaile handi: trenbideek (bertako produktuak hirietara garraiatzeko modu eraginkor eta fidagarria), ureztatze-sistema berriak (horiei esker milaka hektarea landatu ahal izan zen) eta, azkenik, mexikar jatorriko langileak, asko eta gaizki ordainduak, lurak garbitzen, hazia ereiten eta uzta biltzen aritu ziren. 1929an hegomendebaldeko nekazaritza-produkzioa herrialde osoko fruta eta barazki guztien % 40 izateraino iritsi zen.

1910eko iraultzaren ondotik Mexikon aurkarien arteko lehia piztu zen, eta ugaritu egin ziren bidelapur-taldeak; horrek guztiak segurtasun ekonomiko, politiko eta sozialik gabeko gunea bihurtu zuen nekazaritza-ingurua. Une horretan Estatu Batuetako industria eta nekazaritza Lehen Mundu Gerrara soldadu joandako langileak ordezkatu beharrean ziren. Hartara, mexikar langileek enplegu eta segurtasun arazoa konpondu zuten, eta Estatu Batuetako kapitalak lan-indarra eskuratu zuen. Estatu Batuetako gobernuak legalizatu egin zuen jende-isuria 1917an, Mexikoko langileak aldi baterako onartzeko programa berezi baten bitartez, zeina 1921ean amaitu baitzen. Programa horren babesean AEBetan sartutako Mexikoko langile horiekin batera, agiririk gabeko beste milaka ere pasa ziren, baita 1921tik aurrera ere.

1.2 1929ko Krisialdia

1929ko krisialdiak immigrazioari mugak ipintzea proposatzen zuten taldeen hazkuntza ekarri zuen; mexikarrak kontratatzearen aurka zeuden, berez langabezia gero eta handiagoak estu hartzen zituzten estatubatuarrei zegozkien lanpostuak betetzen zituztela argudiatzen zuten. Estatu Batuetako gobernuak krisialdiaren errua nori bota aurkitu zuen, hein batean bederen, eta mexikarrak beren herrialdera bidali zituen masiboki. Garai bertsuan, Mexikoko gobernuak nekazaritza-lurak banatzeari ekin zion, eta gertakari bien erruz, urte jakin batzuetan behinik behin emigranteak sorlekuan errotu ziren.

1.3 Inportazioen ordezkapena

Berrogeiko hamarkadatik aurrera, Mexikok hazkuntza prozesu bizkor bat bizi izan zuen, inportazioak ordezkatu eta barne-eskaera astzeaz gain soberakinak sortzeko ere gauza zen manufaktura-industrian oinarrituta. Horrek soberakina esportatu beharra eragin zuen; 1939 eta 1945 bitartean esportazioak % 100 hazi ziren, barne hartuta bai mafufakturak, baita nekazaritza eta abeltzaintzako produktuak ere. Bigarren Mundu Gerrak halako hazkuntza ikusgarria sustatu zuen (mexikar miraria deitu izan zaio), zeinaren bitartez nazio produktuaren urteko batez besteko hazkuntza % 7raino iritsi baitzen.

Hiri handiak, batez ere hiriburua, Mexiko, herrialdearen bizitzaren ernamuin bihurtu ziren, nekazaritza-ingurueta eta bigarren mailako hirietako jendea erakarri zuten, nahiz eta eskaintzen zituzten lanpostuak (esaterako eraikuntza) ez ziren oso egonkorak. Esportazioei esker lortutako dirua ekoizpen lanetako eskulana ordezkatzeko inbertsioetan erabili zen. Horren ostean lanpostuen sorrera-tasa behera egiten hasi zen hiri- eta industria-guneetan, eta horrek, eztanda demografikoarekin eta Iraultza Berdearekin (nekazaritza-ekoizleak oso aberatsen eta oso pobreen multzoetan banandu zituen fenomeno) batera, enplegu eskaera zerbitzuen sektorerara bideratu zuen, baina hura ez zen guztia irensteko gauza izan.

1.4 Migrazioa Bigarren Mundu Gerran zehar

Hamarkada horretan bertan Estatu Batuak Bigarren Mundu Gerran sartu ziren, eta bertako langileek fronteetara joan behar izan zuten, edo arma-industriara bideratu zirensoldata altuenak ordaintzen zituena industria-sektorea baitzen. Hartara, Estatu Batuek eta Mexikok hitzarmen bat sinatu zuten, zeinaren bitartez Mexikoko langileek Estatu Batuetan sar zitezkeen aldi baterako, langile estatubatuarren ordezkari lanetan aritzeko. Programa horrek (Programa Bracero), 1942 eta 1964 urte bitartean iraun zuen.

Garapenerako eredu ekonomikoak, Iraultza Berdeak, ureztaketek, landatzeko ereduaren eta lurarren erabileraren esparruetako aldaketek... horrek guztiak aldaketak eragin zituen baita nekazaritza-lanaren banaketan, ekoizpenaren antolaketan, eta enplegu-eskaintzan. Gainera, kontuan hartu beharrekoak ziren baita eztanda demografikoa, lur-eskasia, eta bizi-maila hobe baten aldera jotzen duen gizarte modernoaren bulkada. Horrek guztiak eragin zuen aditu jakin batzuek nekazari-exodo deitu zuten fenomeno.

3.3.2. GAUR EGUNGO EGOERA

Estatu Batuak Mexikorekin era guztietako harremanak estutzera jo du (merkataritzakoak, politikoak, inbertsioak...), baina aldi berean mexikar langileen muga gurutzatzeko saioei eusten saiatu zen, nahiz eta alperrik. Laurogeiko hamarkadaren erdialdean legez kontrako immigrazioaren aurkako neurri latzak hartu zituen Estatu Batuetako gobernuak: araudi gogorak ezarri zizkien bertako enpreasari, eta ikaragarri gizendu zuen **muga zaintzeko** aurrekontua. Ahalegin oldarkor horiek guztiak gorabehera, mugetako poliziak porrot egin, eta ez da Estatu Batuetako lan-merkatu zuzendutako agiri gabeko langileen jarioari eusteko gauza izan.

Gaur egun 8 milioi pertsona bizi da Estatu Batuetan legezko paperik gabe eta, estimazioen arabera, urtero 250.000 lagun gehitzen omen zaizkie: herrialdean sartu berriak batetik, bisa iraungi zaien arren bertan geratzen direnak bestetik. Estatu Batuetan sartzen diren eta dagoeneko bertan dauden emigranteen erdia baino gehiago Mexikokoa da jatorriz.

Poliziaren errepresioak ondorio latzak eragin ditu; esaterako, lehen migrazio-jarioak hiri-eremuetako igaroleku gutxi eta ohiko batzuen bitartez bideratzen bazen, orain landa-eremu sakabanatuagotara aldatu da... eta horrek frustrazioa eragin die hirigune horietako bizilagunei, eta hiltzeko arrisku bizia emigranteei beraiei. Neurri gogor horiek ezarri aurretik, ia mexikar guztiak hiru lekutatik gurutzatzen zuten muga, hiruk hirikoak: San Diego Kalifornian, eta El Paso eta Laredo Texasen. Clintonen administrazioak 1993an onetsi zituen neurri zorrotz berriei erantzunez, migrazio-igarolekuak nekazaritza-gune urrun eta galduetara aldatu ziren (Mexiko eta Arizona arteko muga, esaterako); muga zaintzeko taldeak sakabanatuago dauden arren, leku arriskutsuagoak dira.

Muga gurutzatzeko lekuaren aldaketak buruhauste ugari sor dizkie inguru horietan bizi diren estatubatuarrei: emigranteek beren lursailetan sartzen dira eta puskatu edo ondatu egiten dizkiete ondasunak, aziendak ere asalatu egiten dira. Alabaina, ondorioak beste inorentzako baino emigranteentzat izan dira ondorioak ezin latzago: 1995tik hona 2.000dik gora hil dira beroak eta deshidratazioak jota, dela basamaortuko leku galduetan, dela kamioietan propio prestatutako ezkutalekuetan.

Estatu Batuetako immigrazio-legeek talka egiten dute errealitate ekonomikoarekin, eta azken hori ari da leiha irabazten. Estatu Batuetan gertatzen ari den sesoreka gero eta handiago bati erantzuten dio Mexikotik doakien emigrazioak, alegia, kualifikazio eskaseko langileen eskariaren, eta lanpostu horiek hartzeko bertakoen eskaintza gero eta txikiagoaren artekoari. Estatu Batuetako Lan Sailaren estimazioen arabera, kualifikazio eskaseko langileen beharra nabarmen igoko da hurrengo urteetan: 53.2 milioi 2000 urtean, eta 60.9 milioi 2010; hau da 7.7 milioiko hazkuntza guztira.

Bien bitartean, halako lanak egiteko prest dauden langile estatubatuarren kopuruak beharera jarraitzen du, neurri batean langileen batez besteko adina zahartze-prozesuan delako, baina baita hezkuntza-mailaren hazkuntzagatik ere. Mexikar emigratzaileek bete egiten dute lan-merkatuko hutsune hori. Hala eta guztiz ere, migrazio-legeak ez du Estatu Batuetan sartzeko legezko biderik aurreikusten eskaera

hori beteko luketen kualifikazio eskaseko langile etorkinentzat. Ez da oso zaila horren guztiaren ondorioak irudikatzea: legez kontrako immigrazioa, eta, haren eskutik, merkatu beltzari darizkien gaitzak.

3.3.3. GOBERNUEN AHALEGINAK

2001eko otsailean bi presidente hasi berri bildu ziren Mexikoko Guanajuaton: George W. Bush estatubatuarra, eta Vicente Fox mexikarra. Elkarrekin lan egitea erabaki zuten, arazoa konpontze aldera. Bileraren ondorioz, Migrazioari buruzko Goi Mailako Lantaldea sortu zen, mugan zehar legez kontrako jarioa eteteko asmoz. 2001eko irailaren 7an, Washingtonen hiru egunez bildu ostean, **Bushek eta Foxek** "berretsi egin zuten emigrazio ordenatua, segurua, legezkoa eta duina bihurtzeko planteamendu berri eta errealistak lantzeko konpromisoa". Biek adostu zuten immigrazio politikak konpromiso hauek hartzen zituen baitan: "horretarako prest dauden langileak eta enpresak harremanetan jartzea elkarren artean, herrialde bietako behar sozial eta ekonomikoak erantzutea, emigratzaile guztien giza-duintasuna errespetatzea, bakoitzaren estatusari begiratu gabe, emigratzaileek gizarte bien aberastasunari egiten dizkieten ekarpenak aitortzea, eta migrazio bide seguru eta legezkoetatik bideratuko den erantzukizuna konpartitzea".

Orduko hartan, aukera nahiko handiak zeuden ustez Estatu Batuetan agiririk gabe bizi diren 4.5 milioi mexikarrei nolabaiteko egoera legala bermatzeko, eta langile mexikarrak Estatu Batuetako lan-merkatuan legez sartzeko bidea irekitzeko. Alabaina, soilik lau egun geroago, *World Trade Center*en eta Pentagonoaren aurkako eraso terroristek hondatu egin zituzten baita plan horiek ere.

Orain ere, immigrazioa Estatu Batuen eta Mexikoren artean amaitu gabeko negozioen erakusle nabariena da; izan ere, bien arteko harremanak asko hobetu dira beste esparru batzuetan.

Mexikoren irekieraren emaitzarik nabariena Estatu Batuekiko integrazio ekonomiko etengabea izan da. Gaur egun Mexiko Estatu Batuen bigarren bazkide komertziala da, Kanada baino ez du aurretik, eta AEB eta Mexikoren arteko zuzeneko inbertsio atzeritarren jarioa merkataritza bera bezain azkar hazi da. Muga gurutzatzen duten mexikarren kopurua (gehienak bisitari gisa) etengabe handitu da. Errepide, aireportu eta telekomunikazio azpiegituretako hobekuntzek areagotu egin dute ondasun, zerbitzu, kapital eta pertsonen mugimendua. Gainera, aldaketa ekonomikoek bide egin diete aldaketa politikoei.

Salbuespen nabarmen bat izan da joera horren baitan, immigrazio-politika alegia. Mexikorekin merkataritza-harremanak, inbertsioak eta lotura politikoak sendotu dituen arren, Estatu Batuetako gobernuak mugaren bestaldekiko zertorria eskulan-jarioa eteten saiatu da, alperrik saiatu ere. laurogeiko hamarkadatik aurrera, legez kontrako immigrazioari eusteko lehian, Estatu Batuetako gobernuak araudi zorrotz eta kostu handikoak ezarri dizkie enplegu-emaile estatubatuarrei, eta ikaragarri puztu ditu muga zaintzeko aurrekontuak. Alabaina, ahalegin gogor horien gainera, Estatu Batuetako muga-politikak porrot egin du bere xede nagusia lortzeko asmoan: bere lan-merkatuan agiririk gabeko langileen sarrera etetea.

Legez kontrako eskulan hain ugaria arazo politiko eta ekonomikoen iturri da mugaren bi aldeetan. Estatu Batuetan, agiririk gabeko horrenbeste langile izateak merkatu beltza sortzen du, horrek dakartzan gaitz guztiekin: kontrabandoa, agiri faltsuak, soldata desorekatuak, gehiegikeriak oro har. Horrez gain, eztabaidak sortzen ditu legeari sor liezaiokeen obedientziari buruz, eta korapilatu egiten dio gobernuari irailaren 11koaz geroztik terrorismoaren aurka abiarazi zuen gerra. Mexikoren ikuspegitik, aldiz, estatus

legalaren ukazioak oso lege-egoera kaxkarrean jarri izan du milioika herritar, legeberme orotik kanpo, eta legez kontrako enplegu-emaille eta trafikarien gehiegikerien aurrean babesik gabe. **300 mexikar baino gehiago hiltzen da urtero edozein zoko galdutan, muga igaro nahian.**

Estatu Batuetako presidente berriak –Barack Obamak– itxaropenezko aldi berri bat irekitzen die estatubatuar eta mexikarrei. Ikusteko dago arazo honen aurrean zer nolako neurri eta jarrera hartuko dituen.

3.3.4. EMIGRATZAILEEN ERREALITATEA

4.1 Migratzaileak Estatu Batuetako historian

Immigrazioa beti izan da eztabaida-gaia Estatu Batuetan. Orain bi mende baino gehiago, Benjamin Franklinek kezkaz begiratzen zion alemaniarren immigrazioari, pentsatzen zuen alemaniar jatorriko immigratzaileak asko izatera gainditu egingo zuketela Estatu Batuetako kultur molde batez ere eta nabarmenki britainiarra. Mespretxuz hartu zituzten baita XIX. mendearen erdialdean Irlandatik joandakoak, mozkor eta alfer hutsak bailiran; jarrera bera erakusten zieten beste gizatalde katoliko batzuei ere. Aurrerago, XX. mendearen hasieran, "etorkin berriak" (poloniarrek, italiarrek, judutar errusiarrek...) estatubatuar bizitzak bereganatzeko oso desberdinak zirela uste zuten, desberdinegiak. Gaur egun ere antzeko beldurrak ageri dira Latinoamerikako (batez ere Mexikoko) emigratzaileen aurkako argudioetan, baina oker daude egungo kritikoak, antzinakoak oker ziren bezalaxe.

Immigrazioa ez da estatubatuar esperimntua galtzen ari den fenomeno, baizik eta haren osagarri berezkoa. AEB immigratzaileez osatutako herrialdea da. Immigratzaile-saldoek gaztetu egin dute aldika Estatu Batuetako demografia, aberastu kultura, eta indartu ekoizpen-ahalmena; ondorioz, areagotu egin dute herrialdeak nazioartean duen eragin-gaitasuna.

4.2 Benetako egoera

Kaleko usteak diotenaren kontra, **emigratzaileek ez diete lanik kentzen estatubatuarrei.** Emigratzaileek estatubatuarrek ezin edo nahi ez dituzten lanpostuak hartzera jotzen dute, batez ere eskulan kualifikatuaren eskalako goi eta behe aldeetan. Emigratzaileak kualifikazio handia eskatzen duten lanpostuetan ageri dira (medikuntza, fisika, informatika...), baina baita kualifikazio eskasekoetan ere, hala nola ostalaritza eta jatetxeetan, neskame, eraikuntzan eta industria arinean.

Immigratzaileek ez dute gobernuaren dirua xahutzen. ANCren ikerlan baten arabera, emigratzaileek eta haien ondorengoek, bizitzan zehar, 80.000 dolar garbi inguru ordainduko dituzte, batez beste, zergetan; hau da, gehiago ordainduko dute zergen bidez, Estatuaren zerbitzutan jasoko dutena baino. Unibertsitate ikasketak dituzten emigratzaileentzat, itzulkin fiskal garbia 198.000 dolarrekoa da. Egia da kualifikazio eskaseko emigratzaileek eta errefuxiatuek estatubatuar "natiboek" baino gehiago erabiltzen dituztela gizarte-laguntzak, baina 1996ko Gizarte Ongintza Berritzeko Legeak asko gogortu zizkien iritsi berriei laguntza-fondoak eskuratzeko bideak. Horren ondorioz, azken urteetan urritu egin da ongintza publikoko fondoak erabili dituztenen kopurua.

Immigrazioa ez da, ezta ere, neurritz gaineko populazioaren errudun. Estatu Batuetako biztanleriaren hazkuntza (% 1eko), azken mendeko munduko batez besteko hazkuntza-maila baino txikiagoa da. Izan ere, emigraziorik gabe, Estatu Batuetako indar-lana uzkuratzen hasiko litzateke bi hamarkadaren buruan. 2000ko eroldaren arabera, Estatu Batuetako konderrietako % 22k biztanleria galdu egin zuten 1990 eta 2000 urteen artean. Immigratzaileek demografikoki gainbeheran dauden herrialdeko eremuak berpizten lagun lezakete, lehenago ere New Yorken eta biztanleria galtzen ari ziren beste hirigune batzuetan egin duten bezala.

4.3 Gutxiagotasun betierekoa?

Bada beste kezka larriago bat, alegia, immigratzaile mexikar leglizatu berriak (baita horien ondorengoak ere), gizarte estatubatuarrean integratzeko gauza izango diren ala ez. Hauxe dio Patrick Buchanan-ek, Estatu Batuetako presidente izateko hautagai ohi eta immigrazioaren kritikoak: "mexikarren immigrazioak erronka egiten dio gure osotasun kulturalari, gure identitate nazionalari eta, potentzialki, baita gure etorkizun nazionalari ere". Ikuspegi hertsiki ekonomiko batetik, immigratzaile mexikarren familiak, talde gisa, ez dira iristen beste estatubatuarren batez besteko diru-sarreretara hainbat belaunaldi pasatzen diren arte. Diru-sarrerak eta hezkuntza-maila asko igotzen dira lehen belaunalditik bigarrenera, baina hortik aurrera aurrerapausuak eten egiten direla ematen du, Estatu Batuetako gizartearen gainontzerakoarekin konparatuz gero. Izan ere, NRCren ikerlan baten arabera, immigratzaileen arteko soldaten desorekak urritzera jotzen du denborarekin batera, baina ez da horrela gertatzen mexikarrekin. Hori azaltzeko arrazoirik argiena hezkuntza-maila omen da, Mexikokoak emigrante guztien artean hezkuntza-maila apalenekoak direlako. Hara, Estatu Batuetan sartzen diren emigranteak, oro har, 12 urteko hezkuntza izan dute batez beste, baina mexikarrek soilik 7,7 urtekoa. Mexikarren seme-alabek 11 urteko hezkuntza-zikloa osatzen dute batez beste, eta horrek diru-sarrera handiagoak dakartza ondorio zuzen gisa, baina hezkuntza-mailak ez du aurrera egiten hirugarren belaunaldian.

Alabaina, hori ez da mexikarrak Estatu Batuetan sartzearen aurkako argudio batere serioa. Mexikoko immigratzaileak eta beren seme-alabak ez dira nahitaez diru-sarrera urriak izatera kondenatuak. Hezkuntzan eta formakuntzan inbertitzen dutenek aukera hobek dituzte, eta diru-sarrera handiagoak. Berrito ere, erantzun egokiena ez da sistematikoki Estatu Batuetako ateak ixtea, baizik eta jende immigranteari beren eta beren seme-alaben hezkuntzan inberti dezaten motibatzea.

4.4 Asimilazioa

Asimilazioarena auzi garrantzitsua izan da Estatu Batuetako immigrazioaren historian. Bata bestearen atzetik bertara joandako emigratzaile-saldoek euren buruari eutsi behar izan diote ekonomikoki, ingelesez ikasi behar izan dute, eta Estatu Batuetako gizarteko partaide aktibo bihurtu. Immigratzaileek horixe egin ohi dute historian zehar –immigratzaile uholde "berri" bakoitzaren aurreko kritikoen zalantzak gorabehera–. XIX. mendearen erdialdeko irlandarrak, mende berearen amaierako alemaniarak, eta orain ehun urteko Migrazio Handiko italiar, poloniar, austrohungariar, greziar eta errusiar judutarrak, den-denak asimilatu ahal izateko desberdinegiztat joak izan dira, kulturalki, eta baita arrazaren ikuspegitik ere.

Gazteleraren indarra bigarren hizkuntza gisa ikaragarri igo da Estatu Batuetan, baina horrek ez du esan nahi mexikar emigratzaileek ingelesez ikasi ez dutenik, ez dago halakorik baieztatzeko daturik. Ingelesa hizkuntza global gisa mundi zabalean hedatzen ari delarik esparru guztietan (negozioetan, garraioetan, zientzian, herri kulturaren, espeziio zibernetikoan...) ez dirudi balizko Estatu Batuetan dagoen talde bat munduaren

gainontzekoetatik isola daitekeenik. Izan ere, historikoki Estatu Batuak "hizkuntzen hilerri" gisa kontsideratu izan dira, immigratzaileek, eta bereziki beren seme-alabek, ingelesez ikasteko erakutsi duten grina ia saihestezinaren ondorioz.

Estatu Batuetako epe luzeko immigratzaile guztien artean, soilik % 3k dio trakets hitz egiten duela ingelesez, edo ez dakiela batere; bigarren eta hirugarren belaunaldiko ia immigratzaile guztiek daukate ingeles maila ona. Hispaniar jatorriko emigratzaileak ez dira salbuespen. 1998an milaka familia etorkinen gaineko ikerlana egin zuen Michigan State University-ko soziologo Ruben Rumbaut-ek; lanaren emaitzen arabera, Kalifornia eta Floridako immigratzaileen seme-alaben arteko % 88k nahiago zuen ingelesez hitz egitea, nahiz eta % 90 etxean beste hizkuntzaren batean aritzen zen. Hirugarren belaunaldira iristean, gehiengoa ingeles hutsez mintzo zen. Rumbautek ondorioztatu zuenez, "Asimilazio linguistiko azkarreko molde hori ez da soilik nazionalitate edo maila sozio-ekonomiko jakin batzuetan agertzen, han-hemenka errepikatzen da, eta pentsarazten digu denboraren joanean kanpotik ekarritako hizkuntzen erabilerak eta eraginak behera joko dutela nahitaez"; datu horiek ezeztatu egiten dute natiboen beldurretako bat, alegia, komunitate etorkinetan hizkuntza arrotzeko guneak dauden gainekoa.

3.3.5. BALIZKO IRTENBIDEAK

Bertan behera utzi zuten legez kontrako immigrazioaren auziaren irtenbideen bilaketa irailaren 11ko erasoan ostean, nahiz Estatu Batuetako Kongresuko kide gehienek ez duten uste Mexikotik datorren immigrazioak arriskuan jartzen duenik segurtasun nazionala. Aldiz, 2002ko maiatzean Kongresuak Mugen Segurtasuna Hobetzeko eta Bisa Bitarteko sarrera Birmoldatzeko Legea onartu zuen, horixe bai terrorismoaren aurkako erantzun egokia. Legeak atzerrian terrorismo-jardueretan aritzeagatiko susmagarriak identifikatu eta Estatu Batuetan sar ez daitezten lortu nahi du. Azpimarratu behar da lege horretan ez dagoela batere aipamenik legezko immigrazioa murrizteari edota Mexikotik sartzen diren agiririk gabeko immigratzaileen gaineko kontrolak gogortzeari buruz.

5.1 Derrigorrezko aberriratzeak porrot egin du

Estatu Batuetan bizi diren mexikarren derrigorrezko aberriratzea legez kontrako immigrazioaren behin betiko irtenbide gisa aurkeztu izan da behin baino gehiagotan; alabaina, denborak erakutsi du ez dela horrela izan, immigratzaile horiek berriro sartu zirelako Estatu Batuetan. Beste era batera esanda: legez kontrakoen jazarpena irtenbide partziala eta aldi baterakoa da.

5.2 Legalizazioa

Izan ere, bi herrialdeen arteko mugako langileen mugimenduari legezko bide bat irekitzeak Estatu Batuetako segurtasun nazionalaren alde jokatu luke. Irailaren 11koa baino lehen, Estatu Batuetako gobernuak lau bider polizia gehiago jarri zuen Mexikoko mugan Kanadakoan baino, nahiz azken hori bi aldiz luzeagoa den, eta arabiarrek hura nahiago izan duten Estatu Batuetan legez kontra sartzeko. Mexikoko langileei AEBetan legez sartzen utziko liekeen sistemak gobernuaren zerbitzuko milaka langile askatuko lituzke, eta urtero 3.000 milioi dolar aurreztuko aukera emango luke, terrorismoaren aurkako borrokan erabil daitekeen dirua.

Bush eta Fox ex-presidenteek muga bitarteko immigrazioa "seguru, ordenatu, legezko eta duin" bihurtzeko hartu zuten konpromisoa berretsi beharko lukete. Sistema horrek aldi baterako lan-bisa berri bat hartu beharko luke kontuan, mexikarrei legez eta denbora-tarte jakin baterako Estatu Batuetako lan-merkatu sartzeko utziko liekeena; gainera, aurretiaz Estatu Batuetan dauden legez kontrako immigratzaileen egoera legezatzeko aukera eskaini beharko luke, betiere bi irizpideren arabera: lan egindako urte-kopurua, eta beste ekoizpen-jarduera batzuk.

Egun indarrean dagoen migrazio-legeak kriminalizatu egiten du milioika langile immigratzaile fin, bai eta enplegu-emaile estatubatuarrek. Baina batzuen eta besteen "krimen" bakarrik merkatu-ekonomian bien onerako elkarrekin lan egitea da.

Mexikoko immigrazioa legezatzeko abantaila ugari ekarriko lituzke: argira aterako luke egun ezkutuan dagoen merkatu itzel bat, ekoizle estatubatuarrei hazteko behar dituzten langileak kontratatzea ahalbidetuko lieke, soldadak eta kualifikazio eskaseko milioika langileren lan-baldintzak hobetuko lituzke, giza kapitalean inbertsioak egitea sustatuko luke, eta baliabideak eta langileak askatuko lituzke beste zeregin batzuetarako.

Eragozpen ohikoek diotenaren kontra, ez dirudi Mexikoko immigratzaileentzat propio diseinatutako legezko migrazio-sistemak Estatu Batuetarantz zuzendutako migrazio-aldia berriki sortuko duenik, ezta kalte egingo dienik formakuntza eskaseko estatubatuarrei, ez zergapekoei zama berriki bizkarreratuko, legearen arau-haustea ekarriko, edo muga-segurtasuna kolokan jarriko.

5.2.1 Irtenbide bideragarri bat

Bat nator Daniel T. Grisworld-ek migrazioaren auzia konpontzeko proposatzen duen irtenbidearekin: Aldi baterako lan-bisak (*Visas de trabajo temporales*, VTT), eta merezimenduetan oinarritutako doitzeko sistema bat dagoeneko Estatu Batuetan bizi direnentzat, legezko edo legez kontrako diren axola gabe.

5.2.1.1 Aldi baterako lan-bisak

Aldi baterako lan-bisa (VTT) sortu beharko litzateke, benetan eraginkorra, mexikarrei denbora-tarte jakin eta mugatu batean lanean aritu asmoz Estatu Batuetan egoten uzteko. Ez oso aspaldi sortuaren antzera, baina hark baino eskubide gehiago jasoko lituzkeena, eta berrizatu litekeena. Bisa horrek denbora-tarte jakin eta mugatu baterako balioko luke (esaterako: hiru urterako), baina, gorago esan bezala, denbora-tarte gehigarri batean luzatzeko aukerarekin. Gainera, indarrean egon bitartean, herrialdean nahi beste aldiz, mugarik gabe, sartu eta irteteko aukera emango luke. Erabateko mugikortasuna aitortuko luke enplegu eta ekonomia-sektoreen artean, eta "trataera herikidea" bermatuko lioke eramaileari, aurreko hark ez bezala.

Mugikortasuna funtsezko elementua litzateke langileek askatasun osoz lanez aldatzeko aukera izan dezaten, eta horren bidez, soldata hobek; gure ustean, azpi-soldatetatik eta lan-baldintza eskasetatik babesteko modurik onena eskaintza hobea bilatzeko eta aurkitzeko askatasuna izatea da. Ikuspegi orokor batean, langileen mugikortasunak lan-eskaintzen jarioa ahalbidetuko luke, lan-eskaera aldaketei erantzun ahal izateko. Trataera herikidearen babespean, Estatu Batuetako langileen lege-tratu berbera izango lukete; horri esker, aldi baterako langile atzeritarrei ez litzaieke ez legez jasotako hobaririk emango, ezta desabantailarik ezarriko ere.

Mugikortasuna eta trataera herikideak iraganeko "langile gonbidatuen" eta antzeko programetako gehiegikerietatik babesteko lituzkete langile immigratzaileak. Bracero programak eta antzeko beste batzuen huts zorigaitzokoa langileak lantoki edota

enplegu-emaille jakin batekiko lotzea izan zen; hartara, langileak babesik gabe geratzen ziren ugazaben mendera. Atzerrian jaio eta Estatu Batuetan lan egin dezaketen egoiliarrei aplikatzen zaien lan-baimenaren agiri estandarra (I-688 B formularioa) litzateke Aldi baterako lan-bisaren (VTT)eredu egokiena.

Emandako bisa-kopurua Estatu Batuetako lan-merkatuaren eskaria asetzeko adinakoa izan beharko luke. Legez kontra sartzen direnen estimazioa kontuan hartuta, urteko 300.000 bisako muga abiapuntu egokia izan daiteke. Bisa eskatzeko eskariaren truke kuota jakin bat ordaindu beharko litzateke; kuota horrek kostuak betetzeko eta eskariarekin jokatu ahal izateko bezain zabala, eta legez kontrakoak merkatutik atera ahal izateko bezain txikia izan behar luke. Berrito merkatu beltza agertuko balitz (edo iraungo balu), kuota txikitu edo bisa-kopurua handitu egin beharko litzatekeen seinale. Kuotaren dirua programari eusteko erabiliko litzateke, eta superabitik balego, estatuko eta tokiko gobernuen artean banatuko litzateke, leudekeen kualifikazio eskaseko langileengatik sortutako gastuak betetzeko. 300.000 bisa aterako balira zirkulaziora, bakoitza 1.000 dolarren truke, diru-sarrerara 300 milioi dolarrekoa litzateke. Bisak prezioen arabera banatu beharko lirateke, ez gobernu-agentzien bidez, horiek ustelkeriaren mende eror baitaitezke.

5.2.1.2 Lan zintzoaren trukeko eta merezimenduetan oinarritutako doitze-sistema

Dagoeneko Estatu Batuetan dauden agiririk gabeko langileei estatus legala lortzeko aukera emango dien sistema bat sortu beharko litzateke, irizpide gisa lan egindako urte-kopurua eta beste ekoizpen-jarduera batzuk hartuta. Langile horiei Aldi baterako lan-bisak eman behar litzateke lehenbailehen, betiere aurretiaz izena erregistro batean ematen badute, eta herrialdearen segurtasunarentzat mehatxu ez badira. Estatu Batuetan denbora jakin bat baino gehiago bizi izan direnei bizitzeko baimena eskatzeko aukera eman behar litzateke, bai eta, azkenik, herritartasuna. Estatus legal horren muga bizkarrean krimen larririk ez edukitzea izan behar luke. Estatu Batuetako Ordezkarien Etxean gutxiengoaren lider Dick Gephardt-ek demokraten lege-proposamena agindu zuen, zeinaren bitartez "legalizazioa emango litzaiokeen merituen bidez Estatu Batuetan gutxienez bost urtez bizi, gutxienez bi urtez lan egin, eta arauak bete lituzkeen agiririk gabeko atzerritar orori".

Egun herrialdean sartzen ari direnen antzera, dagoeneko bertan direnek ere bisa eskatzeko kuota ordaindu beharko lukete; eta kasu horretan ere diru hori kostuak betetzeko eta gobernu-agentziei banatzeko (auziarekin zerikusia duten beste gastu ez hain zuzenak estaltzen laguntzeko) erabiliko da.

Legalizazio hori ez litzateke laurogeita hamarreko hamarkadado amnistiaren errepikapen hutsa. Langileek ez lukete automatikoki betirako bizitzeko baimena eskuratuko, baizik eta aldi baterako baliodun bisa. Bizitzeko baimena ohiko bideetatik eskatu beharko lukete. Beraz, ez lukete aldeko trataera berezirik jasoko, baina legezko bideetatik sartutakoaren pare egongo lirateke. Eskariak modu egoki eta eraginkorrean kudeatu beharko lirateke.

5.3 Mexiko legeztatzen hasteko arrazoiak

Arrazoi praktikoak medio, legalizazio-prozesua mexikar jatorriko immigranteekin hasi beharko luke; kokapenagatik, eta dagoeneko Estatu Batuetan dagoen langile-kopuruagatik, Mexiko da immigrazio-herrialde garrantzitsuena, alde handiz. Mexikoko gobernuak Estatu Batuetakoarekin batera programa egoki bat abiarazteko gogo handiz dago; Mexikoko gobernuaren laguntza beharrezkoa izango da programak behar bezala funtziona dezan, Estatu Batuetako segurtasun nazionala eta Mexikoko segurtasun ekonomiko eta soziala berma daitezzen. Dagoeneko Ipar Amerikako lan-merkatu integratua dena legalizatzearen aldeko argudio dira Estatu Batuen eta Mexikoren arteko lehorreko muga luzea, eta merkataritza-harreman gero eta handiagoak.

Egilea: Carlos Torres Hinojosa

Iturria: <http://www.monografias.com/trabajos17/migracion-mexicana-usa/migracion-mexicana-usa.shtml>

Gai honen gainean gehiago sakondu dezakezue esteka hauen bidez:

1. El apartheid global, el coyotaje y el discurso de la migración clandestina: distinciones entre violencia personal, estructural y cultural. Egilea: David Spener
<http://www.estudiosdeldesarrollo.net/revista/rev10/c6.pdf>

2. Artikulu interesgarri bat:
<http://www.jornada.unam.mx/2008/06/12/index.php?section=mundo&article=031n1mun>

(Argazkiak: http://philipperevelli.com//mex_migr/index.html)

3.4. Artikulua: Legez kontrakoehiza

Arizonako 'patriotek' legez kontrakoak harrapetzeko 'safariak' antolatzen dituzte

Mila zibil inguruk aurka egiten diote legez kontrako mexikar etorkinen «inbasioari», armaz eta 16 hegazkin arinez hornituta

JACOBO GARCIA. EL MUNDOrentzat, 2005eko martxoaren 30a

MEXIKO.- mendi-ibilaldiak, zaldizkoak, ehiza, eta, amaitzeko, legez kontrako etorkinen harrapaketa, Arizona eta Mexikoren arteko muga. Horixe da estatubatuar patriota zibil talde batek eskaintzen duen pakete turistikoa; datorren ostiraletik aurrera beren kasa ibiliko dira bi herrialdeen arteko muga zaintzen.

Hainbat hilabete daramate Interneten bidez koordinazio-lanetan, Minutman Proiektu (MMP) izenpean; diotenez, dagoeneko badituzte 1.000 bolondres, herrialdeko leku guztietatik etorriak, urtero apirilean Chihuahua, Sonora edo Behe Kaliforniatik muga gurutzatzen saiatzen diren Mexikoko eta Ertamerikako etorkin-saldoei bidea oztopatzeko asmoz

Hilabetez, 1.000 Minutman horiek gau eta egun arituko dira muga zaintzen, «beren lurak inbasiotik babesteko»; bien bitartean, aurrera darrai «subiranotasuna mehatxupean» dagoela sentitzen dutenen, gerrako beteranoen, irrazi-operatzaileen, abokatuen eta, batez ere, hegazkina duten eta hegazkin-gidari diren patrioteen erreklutamendua. Dagoeneko badituzte 16 hegazkin.

Beren agendaren arabera, datorren ostiraletan hasiko da dena: MMPko kideak, Estatu bakoitzeko banderez jantzita, Tombstone-ko Scheffelin eraikin publikoaren aurrean bilduko dira; hantxe bertan argibideak eta orientazio-ikastaro labur bat jasoko dute.

Abenturak 1.200 eta 3.500 dolar bitarteko kostua izango du. Antolatzaileek kanpainadenda, lo-zakua, eta gauzez ikusteko prismatikoak eramatea gomendatzen dute. Bistan eramanez gero, Arizonako Estatuko legeak soinean armak izateko eskubidea baimentzen du.

Legez kontrako etorkinen ehiza Tucson, Douglas eta Nogales hiriek osatzen duten hirukiaren baitan izango da, Sonora estatuaren (Mexiko) eta Arizonaren (Estatu Batuak) arteko muga. Zainketa-jardueraz gain, Minutmanek manifestazioak antolatu dituzte, patruilentzako diru gehiago, eta Mexikorekin muga egiten duten inguruetan armada ager dadin eskatzeko.

Estatu Batuetako Administrazio eta Kongresuari zuzentzen dizkiote ia kritika guztiak; izan ere «berari dagokio legez kontrako immigrazioaren arazoa konpontzeko ardura». Antolatzaileek Konstituzioaren IV. artikulua aldarrikatzen dute, zeinaren arabera «Gobernuak inbasioaren aurrean gu babesteko betebeharra du».

«Ongiaren garaipena»

Joan den hilabetean Mexikok protesta egin zuen ohar diplomatiko baten bidez, Estatu Batuetako lege federal eta tokikoak urra ditzaketen legez kontrako ehiza-talde horien jardueratik.

Minutmenek azaldu dute «pasibotasun aktiboan» oinarritutako segurtasun-indar gisa arituko direla, hau da, legez kontrako etorkinak bilatu, eta eskura dituzten baliabide guztiak erabiliko dituzte beren eragin-eremutik ihes egin ahal ez dezaten. Estatu Batuetako legeen arabera, ezingo dute inor atxilotu, baina bai armak erabilti, erasorik izanez gero. Mexikok abokatu gehiago kontratatu ditu, herritarrak epaitegietan defendatu beharko balitz.

Estatu Batuen eta Mexikoren arteko muga 3.000 kilometrokoa da; Arizonatik sartzen dira legez kontrako gehienak. Etorkin gehiago atxilotu zituzten iaz Arizonan muga-zaintzaileek muga egiten duten beste estatu guztietan batera baino.

Etorkinak sartzeko saio gehienak apirilean izaten dira; patrioteen elkarteek eguneko 10.000 etorkinez hitz egiten dute.

Etorkin-ehiztariek zaintza-postuak paratuko dituzte mugako 36 kilometrotan zehar, bakoitza Estatu jakin bateko banderarekin apaindua. Aurrerantzean jarrartzeko asmoa dute; etorkinen aurkako bolondresen web-orrian dioten moduan, «gaizkiak irabaz dezan behar den gauza bakarra jende zintzoa geldirik geratzea da».

Jatorrizko

iturria

(gaztelera):

<http://www.elmundo.es/papel/2005/03/30/mundo/1776426.html>

4. Irudietan murgiltzea: filmeko balioespena

Atal honetan, filma ulertu eta aztertzeko hainbat alderdi garatuko ditugu, hain zuzen, hurrengo atalean gauzatuko diren jarduerak osatuko dituztenak:

- Errealitatea ikusizko hizkuntzaren bidez esploratu daitekeela ezagutzea eta ikus-entzunezko narrazioaren azterketa kritikoa egin ahal izateko trenak erabiltzen jakitea.
- Irudien inpaktua aprobetxatzea, narrazio zinematografikoaren bidez, giza eskubideen aldeko hausnarketa eta ekintza eragiteko.
- Tolerantzia, elkartasuna eta aniztasuna bezalako balioetan hezteko, filmeko hizkuntzen bidez, zeharkako gaiak azpimarratuz, adibidez, bakearen aldeko hezkuntza, kontsumo arduratsua edo ingurumena.

4.1 Laburmetraia:

Laburmetraiek ezaugarri jakinak dituzte:

1) Iraupen mugatua. Iraupen laburrekoak izanik, beste ekoizpen batzuk baino merkeagoak dira; esaterako, film luzeak edo telebistako serieak baino. Laburmetraien gehienezko iraupena 25 edo 30 minutukoa izaten da.

2) Izaera ez-komertziala: Laburmetraiek ez dute, normalean, banaketarako eta proiektiorako sendo eta finkorik izaten. Zuzendariek eta ekoizleek ez dute helburutzat hartzen errentagarritasun komertziala, nahiz eta, zenbaitetan, egindako inbertsioa azkar berreskuratzeko edo atzerrian laburmetraia kopia saltzeko aukera izan.

3) Besteren ekoizpen-bitartekoak: Luzemetraien ekoizpen zinematografikoetan ez bezala, produkzio-etxeek ez dute beren ekipamendu teknikoa izaten film laburretarako; enpresa espezializatuei alokatzen diote proiektuak gauzatzeko. Bi ondorio ditu horrek: alde batetik, geografiaren eta logistikaren ikuspegitik, produkzioa hiri handietara mugatzen da, Madrilera eta Bartzelonara, bereziki. Eta bestetik, noiz edo noiz eta maiztasun jakinik gabe laburren bat egiten duten produkzio-etxe txikien atomizazioa.

Gazteek noizbait luzemetraia bat egitera iristeko erabili ohi duten bitartekoa izaten da film laburra, nahiz eta badiren aparteko genero moduan, bestelako goranahirik gabe, lantzen duten zinemagileak ere.

4.2 Dokumental faltsua

Dokumental faltsu deitzen zaio zinema eta telebistako genero jakin bati, baita genero horren moldeen arabera egindako lanei. Komediaren baitan sailkatzen da, nahiz eta badiren dokumental faltsu dramatikoak, esaterako hauxe, ON THE LINE izenekoa. Dokumental faltsuek bizitza errealaren itxura duten arren, fikzioko lanen antzera produzitzen dira.

Sarritan dokumental historikoak bailiran aurkezten dira, narratzaileek iraganeko gertakizunez aritzen dira. Errealitateko zinemaren baliabideak ere erabiltzen ditu dokumental faltsuak, esaterako, pertsonaia jakin bat hartu, eta bere bizitzako hainbat egoeretan jarraitzen dio. Satira molde horren aitzindariak aurkitzeko 1950eko hamarkadara joan beharra dago, *Panorama* izeneko britainiar programaren 1957ko saio bat lehenetarikoa da. Ingelesez *mockumentary* terminoa erabiltzen da (terminoa *This is Spinal Tap* filmaren zuzendari Rob Reiner-i egozten zaio, laurogeiko hamarkadako erdialdean erabili zuen lehenengoz elkarrizketa batean, pelikula hari buruz ari zelarik).

Dokumental faltsu dramatikoak urriagoak badira ere, aitzindari klasiko bat dute, Orson Welles-ek irratirako prestatu zuen *Munduen gerraren* bertsioa.

Sarritan dokumental faltsuak inprobisatuak izaten dira, osorik edo zatiren batean edo hainbatetan, beti ere jokatzeko estilo honek errealismoaren itxura zaintzen laguntzen duen premisapean. Isaki Lacuesta-ren hitzetan, "**dokumental faltsuaren gakoa hauxe da: gezurretan aritzea, baina ikusleari iruzur egin gabe**".

4.3 Fitxa teknikoa eta sinopsia

ON THE LINE

Jatorrizko bertsioa, ingelesez; azpтитuluak euskaraz eta gaztelerez

Gaia: MUGAK-ARMAK-INDARKERIA

Zuzendaria: Jon Garaño

Ekoizpena: Moriarti Produkzioak

Herralde: Espainia, 2008

Iraupena: 12 minutu.



Laburpena: larunbat arrunt batean gaude, Kaliforniako hegoaldean. Adam, klase ertain-apaleko estatubatuarra da, eta emaztea eta seme-alabak agurtzen ditu, asteko lanera joateko.

4.4 Laburmetraiaren une garrantzitsuak:

1. Canal 64: "Muga hautsita"

Dokumental faltsu hau Canal 64 kateko teleberri baten irudiekin hasten da. "Muga hautsita" ("Frontera rota") izeneko erreportaia ematen ari dira: bertan, muga legez kontra gurutzatzen duten emakumeen egoera eta ekintza horrek dituen arriskuak azaltzen dira. Besteak beste lehen pertsonaia aurkeztuko digu, Eugenia García. Elkarrizketa egiten diote emakume horri, hilabete gutxiko haurtoa altzoan duela; zergatik Estatu Batuetara iritsi nahi duen kontatzen du, semeari bizi hobea eta hezkuntza emateko, familia zabalagoa, aita....

2. Guraso on bat

Estatu Batuetako bandera bat kulunkatzen da airean, herrialde horretan ohiko diren etxe batetik zintzilik. Filmeko pertsonaien aurkezpenak sukaldean jarraituko du: beste ama ba ageri da, Eugenia García bezala, hauxe ere ere haur txikia besoetan hartuta, eta hiru seme-alabak eta senarra, Adam, aurkeztuko dizkigu. Gosarirako bildu dira sukaldean; aita-amak guraso maitabera gisa agertzen dira. Adamek alde egin behar du; emazteak ataririk agurtu du, eta gizona kamionetara igo da: "Amorratzen nau larunbatean lan egin beharrak, baina beraiengatik egiten dut". Artean lantokira iristeko tartetxoa falta zaiolarik, Adamek musika pizten du: "Seme-alabei pilo bat gustatzen zaie abesti hau"... Beranduago, kamioneta muga-zaintzaileen kontrol-dorre baten paretik pasa da. Adamek dio: "Horra mutil zintzoak. Legez kontrako etorkinak gordetzen ditugun bitartean, ura eta jana ematen diegu. Ez gara jende gaiztoa". Une horretatik aurrera, ikuslea guraso on horren lana zein ote den pentsatzen hasiko da ...

3. "Arazoa dugu"

Beste pertsonaia bat agetzen da, Brian, Adamen lankidea. Amerika "inbasio" batetik defendatu beharraz ari da kamararen aurrean. Lurraldea defendatzearen aldeko argudioak emango dituzte biek ala biek. Gero, basamortuan ikusiko ditugu, Estatu Batuetako bandera baten eta eguzki-oihal baten ondoan. "Arazo bat dugu: mexikar jendea dago muga legez kontra gurutzatzen, eta muga-zaintzalerik ez da ageri". Adam haruntz doa: "Armarik, izan, badugu, baina ez ditugu erabiltzen".

4. Atzera itzuli ezineko unea

Adam haserre da: "Ez dakit zergatik etorri behar duten. Ni ez naiz Mexikora joaten. Ez da bidezkoa". Beste bandera bat ikusten da berriro, urrutian. Adam furgonetatik jaitsi da, fusila eskuetan. "Egon zaitezte lasai, ez dut eta erabiliko". Bi pertsona ikusten ditu, eta beraiengana zuzentzen du fusila, geldi daitezen agintzen dien bitartean. Berriro Eugenia agertzen da, bapatean ihesari egingo dion gizona batekin batera. Eugeniak eskuak altxatu ditu, beldurrak hartuta. Adam oihuka ari da, sutan: "Jaitsi zaitez muinotik".

Eugeniak: "Haurtxo txiki bat dut".

Adamek: "Itxi ezazu aho zikin hori. Burua lehertaraziko dizut ez bazara hortikl jaisten..."

Kamera mugimendu urduritan dabil. Eugenia, zeharo nahastuta, ihes egiten saiatu da. Adamek tiro egin du, eta emakumea lurrera erori da.

Adam negarrez ari da; gainera, haur txiki baten negarra ere entzuten da. Adamek besotan hartu du haurra.

5. Amaiera eta hasiera

Adam urrunduz doa bere autoan. Berrito ere Eugeniaren irudiak agertzen dira, kamarari hizketan: "Nik izan dudana baino bizi hobea eman nahi diot. Batek daki, agian aita ere lortuko diot nire Jesúsi". Adam etxean sartu da, haurtxoa besoetan duela. Beste behin ikusten da Estatu Batuetako bandera, oraingoan geldirik eta argirik gabe.

4.5 Zinema-hiztegia

Film bat hainbat hartualdiz, eszenaz eta sekuentziaz osaturik dago. Hiru osagai horien bidez antolatzen dira historiaren eduki dramatikoa eta estetikoa; horietako bakoitzak oso zeregin zehatza du film baten eraketan eta, aldi berean, osagaiak era askotakoak izan daitezke.

Hartualdia

Hartualdia kameraren egintza bakarra da hasieratik amaieraraino; hau da, Zuzendariak "Hasi!" esaten duen unetik "Eten!" esan arteko denbora hartzen du, iraunaldia kontuan hartu gabe.

Hartualdiak funtsezko hiru elementu ditu:

1. Planoa, proportziozko neurri gisa hartuta (enkuadratzea)
2. Objektua erreferentziazat harturik kamerak duen kokalekua (angelumendua)
3. Kameraren mugimenduak.

Hiru elementu horiek konbinatuz historiari buruzko informazio-motaren bat emateko aukera dugu; horregatik, hartualdia oinarrizko adierazpen-unitate den planoarekin parekatu ohi da.

Plano-motak.

Enkoadraketaren arabera

- **Long Shot edo Plano Luzea:** Oso ikuspegi zabala hartzen du eta batez ere paisaiak, eraikinak, zerua, etxe osoak, mendiak eta horrelakoak erakusteko erabiltzen da. Horrez gainera, plano-mota horrek emozio-funtzioak ere bete ditzake. Bere helburu nagusia testuingurua eraikitzen laguntzea da, ekintza inguru fisiko batean kokatuz.
- **Full Shot edo Plano Orokorra:** Plano honen ezaugarri nagusia garaiera da, pertsonaia edo pertsonaiak oso-osorik ageri baitira, burutik hasi eta oinetaraino. Plano horren bidez aukera dugu gure pertsonaiaren ezaugarri batzuk ikusteko, adibidez: garaiera, gorpuzkera, erabiltzen duen arropa, eta aldi berean, bera mugitzen den espazioa ere erakusten digu.
- **American Shot edo Plano Amerikarra:** Burua baino pixka bat goragotik belaunaren behealde edo goialderaino iristen da. Plano horrek aukera ematen digu pertsonaiari buruzko xehetasun gehiago izateko eta haren gorputz-adierazpenaz hobeto jabetzeko.
- **Medium Shot edo Plano Ertaina:** Pertsonari buruzko zehaztasun gehiago ematen dizkigu. Plano honetan ingurunea ez da hain nabaria, pertsonaiak leku gehiago eta presentzia handiagoa hartzen baitu pantailan. Burua baino pixka bat goragotik gerriaren pareraino iristen da gutxi gora behera.
- **Medium Close-up plano:** Buru gainetik bular alderainoko tartea hartzen du, eta zehatz-mehatz erakusten ditu pertsonaiaren ezaugarriak, ingurunea ia-ia ez ikusteko moduan utziz. Xehetasun-plano horrek aske samar lan egiteko aukera ematen digu, pertsonaiak zenbait mugimendu egin baititzake, koadrotik irteteko arriskurik izan gabe.
- **Close-up edo hurbiltzea:** Close-up hori erabiliz gero pertsonaiaren aurpegia baino ez dugu ikusiko, iletik sorbaldetarainoko tartea hartzen baitu. Oso plano itxia da eta zehatz-mehatz erakusten dizkizu aurpegiak eta emozioak; ingurunea desagertu egiten da eta keinuen eta begiraden garrantzia areagotzen da; pertsonaiaren barne-mundura garamatza. Plano zaila eta arriskutsua da, pertsonaiak ezin baitu ia-ia mugimendurik egin, eta gainera irudia zehaztasun osoz fokatu behar da, bestela hartualdia lauso geratuko baitzaigu.
- **Big Close-up edo Hurbiltze Handia:** Planorik itxiena da Begiak, horietako baten zatia, eskua edo azkazala erakuts ditzake. Plano horrek aurpegi edo gauza baten parte jakin bat erakusten digu, horren ingurukoak erabat ezkutuan geratuz.
- **Insert edo Xehetasun Planoa:** Plano hau, funtsean, aurrekoaren berdina da, baina bien arteko aldea nabarmentzekotan esango genuke insert horrek batez ere gauzak edo egintza txikiak erakusten dituela, eta ez horrenbeste pertsonaiaren aurpegia.

Kameraren kokaguneen arabera:

Eskuarki, pertsonaren begiradaren parean jarri ohi da kamera. Kamera pertsonaren gainetik altxa eta behera begira jartzen badugu, pikatu bat egingo dugu.

Altuerarik handiena posizio zenitalean lortuko dugu; hala ere, kamera gora begira dugula gure ikuspegia subjektuaren azpira bideratzen badugu, pikatu hori kontrapikatu edo eskortzo bihurtuko da.

Kameraren mugimenduen arabera.

Film batean hainbat eratako mugimenduak ager daitezke:

- Kameraren aurrean pertsonak edo gauzak mugitzen dira.
- Jendea edo gauzak ez baina kamera bera mugitzen da.
- Bi mugimendu horiek aldi berean gerta daitezke.

Hori kontuan izanik funtsezko bost mugimendu ditugu: Dolly-a, Travelling-a, Tilt-a, Panning-a eta Zooming-a.

Lehenengo lau mugimenduak berez kameraren mugimenduak dira, eta azkenekoa, berriz, lenteen mugimendua.

- **Dolly-a:** Kamerak bere ardatzaren gainean (euskarri eta guzti) atzeraka edo aurreraka objektuarengandik urrunduz edo hurbilduz egiten duen mugimenduari esaten zaio Dolly-a; aurreraka baldin bada Dolly-in esaten zaio eta, atzeraka bada, berriz, Dolly-back.

Eskuarki Dolly-a ikuslea ekintzan sarrarazteko erabili ohi da, gure arreta aukeratutako gauza edo pertsonaiarengana eramateko. Dolly-in mugimenduak pertsonaiarengana hurbildu eta haren emozioak sentiarazten dizkigu, haren hitzak, ekintzak edo keinuak erakusten baitizkigu.

Dolly-back mugimenduak, aldiz, bestelako sentsazioak sorrarazten dizkigu. Kamera objektu edo pertsonaiarengandik urrutiratzean, hura ingurune zabalago batean txertatu eta haren bakardadea senti dezakegu.

Dolly-in batek sorrarazten duen emozioa eta Dolly-back batek sorrarazten duena desberdinak dira; izan ere, batek lehendik ikusia dugun plano batera hurbiltzen gaitu xehetasun handiagorekin, puntu jakin bat nabarmenduz; besteak, berriz, pixkanaka erakusten digu, bizkarrez atzeraka doanaren sentsazioa sorraraziz.

- **Travelling-a:** Kamerak bere ardatzaren gainean alde batera nahiz bestera egindako mugimenduei esaten zaie Travelling-a. Kamera ezkeraldera mugitzen bada Travel left esaten zaio, eta eskuinaldera bada, berriz, Travel right. Travelling-aren eginkizun nagusietako bat irudiaren dinamismoa adieraztea da; pertsonaren ekintzan sarrarazten gaitu eta aldi berean testuinguruaren deskribapen laburra egiten digu.

- **Tilt-a:** Bai Tilt-a eta bai Pannin-a tripodearen lepoa jiraraziz eta kamera lekuz aldatu gabe egiten diren mugimenduak dira. Tilt-a gora edo behera egiten den mugimendua da, buruarekin bai edo ez esatean egiten dugun bezala. Mugimendua gora egiten denean Tilt-up deitzen da eta behera denean, berriz, Tilt-down. Bi mugimendu horiek oso deskriptiboak dira.

- **Panning-a:** Kameraren azken mugimendu hori buruarekin ezetz esatean egiten dugunaren antzekoa da eta bira-erdi bat da ia-ia. Ezkerraldera egiten denean Pan-left esaten zaio, eta eskuinaldera egiten denean, Pan-right.
- **Zoming-a:** Zooming-a lenteen mugimendua da soil-soilki. Objektura hurbildu edo urrutiratu egiten gara baina kamera lekuz aldatu gabe; hurbiltzeari zoom-in esaten zaio eta urruntzeari zoom-out.
Azkenean, enkoadraketak eta kameraren mugimenduak film-zuzendariaren egitasmoen arabera konbinatzen dira filma egiteko. Sarritan, zuzendariak, kamera-mugimenduez balliatuz, plano batetik bestera pasatzea erabakitzen du hartualdi berean, bere sormen-premiak betetzeko eta historiak berak dituen adierazpen-premiei erantzuteko.

Eszena

Eszena unitate abstraktua da eta klausula dramatiko bat erakusten digu. Elkarri lotutako hainbat hartualdiz osatua dago, eta horri esker pantailan unitate tematikoa sortzen da.

Eszena bakoitzak historiaren une jakin bat irudikatzen du eta bere esanahi berezia du; hala ere, eszenak ezin dira Sekuentziatik bereizi.

Sekuentzia

Sekuentzia, beraz, denbora- eta espazio-unitate bat da, elkarrekin lotuta dauden hainbat esenez osatua; eszena horiek, filmaren beraren barruan film txiki bat kontatzeko ahalmena dutenez, autonomo bihurtzen dira.

Egia esan, plano-sekuentzia delakoa ez da zorrotz-zorrotz hartuta zinema-hizkuntzaren osagai hutsa, zehaztasun teknikoaren eta antzezpenaren emaitza ikusgarria baizik, baina hala ere, bere eduki estetiko eta funtzio komunikatiboa direla-eta, aipatu beharreko baliabidea da.

Jeneralean eszena oso bat (nekez sekuentzia bat) duen hartualdi bakarra delako esaten zaio horrela. Plano-sekuentziak hartualdi luzeak izaten ditu, eta horien ezaugarri nagusia da plano batetik bestera igarotzea hartualdia eten gabe; hau da, teknikoki hartualdi baten iraupena izaten du, baina narrazioaren aldetik ikusita eszenaren ekintza dramatiko erakusten du.

Plano-sekuentziak filma ikusteko hainbat abantaila ematen ditu, eszena eteteak dakarren denbora-etena eragozten baitu, baina horrez gainera aukera ematen dio ikusleari denbora-unitate berean, une horretan bertan gertatzen ari den ekintzaren dinamismoa bizitzeko bere xehetasun guztiekin.

5. Zinema, Giza eskubideak eta Hezkuntza. Proposamen didaktikoak

Giza eskubideen hezkuntza prozesu bat da eta horri esker pertsonak beren eskubideei eta besteen eskubideei buruz ikasten dute, ikaskuntza elkarreragilea eta parte-hartzailea oinarri hartuta. Jarrerak eta jokabideak aldatzeko, trebetasun berriak eskuratzeko eta ezagupenen eta informazioaren trukea sustatzeko helburua duen hezkuntza-lanerako eredu bere bada.

Ikaskuntza neurri handi batean bizipenaren bidez lortzen da, eta ez horrenbeste ezagutza-pila bat erdietsiz, eta alde horretatik zinema oso tresna egokia da ikasteko, aukera ematen baitigu munduan dauden eta denongan eragina duten arazoei buruzko kontzientzia zabaltzeko eta ikus-entzunezko baliabide horren bidez errealitateari hurbiltzeko. Kamera gure begiradaren tresna da eta alde horretatik hezkuntzak errealitateari eta horren zergatiari buruzko begirada sentibera eta kritiko bihurtu behar luke. Hortxe dago gakoa.



Giza eskubideen adierazpen unibertsali buruzko gogoetak

- 1- Zein dira oinarrizko eskubideak edonorentzat?
- 2- Zure ustez zein dira zure eskubideak?
- 3- Zein dira nekez aitortzen dizkizuten eskubideak?
- 4- Besteen zein eskubide kostatzen zaizu gehien aitortzea?
- 5- Zein dira gehienetan urratzen diren eskubideak?
- 6- Adierazpena herrialde askok izenpetu badute ere, praktikan zergatik ez dira onartzen aurrerapen baten bidez?
- 7- Zein eskubide falta dira Adierazpen horretan?
- 8- Zer nolako zereginak bete beharko lirateke Giza Eskubideak lortzeko?

Metodologia

Jarraian proposatzen dizkizuen jarduera hauek gidaliburuaren amaieran aipatutako liburu edo iturrietan aurkituko dituzue. Beraz, ez kezkatu, baliabide ugari ditugu-eta. Hala ere, gauzak argi eta garbi esanda, jarduera hauek "aitzakia ezin hobea" dira gogoeta eta azterketa pertsonalaren inguruko gaiak lantzeko eta kontzeptu batzuk aztertzeko, hala nola bizikidetza, begirunea, kultura parte-hartzailea eta abar.

Jarduera horiek egiteko ezinbestekoa da gelan giro egokia sortzea, taldeak bere kabuz autogestionatu eta mundu guztiak parte hartzeko modua izan dezan. Arreta handiz joka ezazue kontraesanetan ez erortzeko. Kultura parte-hartzaileaz ari garenean ikasleei parte hartzen uzten ez badiegu, aurpegiratu egingo digute arrazoi osoarekin. Zuek zenbat eta gutxiagotan parte hartu, hainbat eta hobe. Berez, egokiena zera litzateke: taldeak bere kabuz jardun dezala, zuek emango dizkiezuen jarraibideak kontuan hartuta noski.

Saiatu saio malguak egiten; eska iezaiezue kexak azaldu ordez proposamenak egin ditzatela, eztabaida batean elkar aditzen ez dutenean besteak esan duena beste era batera esan dezatela... entzuketara aktiborako tresna egokiak erakutsi ikasleei, jarduera beren eguneroko bizimoduko adibideekin osatu dezatela....

Gelan giro egokia sortu eta ulertarazi behar zaie bizikidetza eta gizalege-arauak eharrezkoak direla, baina ez norbaitek ezartzen dizkigulako, denon artean hitzartzen ditugulako baizik; beren iritzia kontuan hartzen dutela ikusiz gero beste modu batean konektatuko dute taldeko gainerakoarekin.




UNITATE DIDAKTIKOA

Actividad	Objektivos	Contenidos	Procedimientos	Actitudes
Lehen irudipena	Filmak pertsonaien bidez sorrarazten dituen berezko sentimenduak aztertzea	Giza eskubideen kontzeptuan sakontzea	Lehen irudipenak sortzea eta eztabaida	Gure pertzepzioen bidez, iritziak berez sortzen ikastea
Zazpi desberdintasunak	Gizarte hierarkiak ezartzera eramaten gaituzten gizarte desberdintasunaren inguruan gogoeta egitea.	Desberdintasun kulturalak	Talde lana	Gure aurreiritzien atzean zer dagoen aztertzen ikastea
Identitatea eta kidegoa	Identitate eta kidego kontzeptuen arteko aldeak bereiztea	Identitatea / Kidegoa	Testu-ulermena / Hausnarketa pertsonala eta bateratze-lana	Identitate eta kidego kontzeptuen arteko aldea ulertzea
Abestu dezazu	Abesten ditugun kantuen bidez adierazitako kultur desberdintasunak aztertzea.	Kultur desberdintasunak Immigrazioa	Irakurri harreta handiarekin kantuen letra Abestien edukia aztertzea	Idolotzat jotzen ditugun pertsona ospetsuengandik iristen zaizkigun mezuekin kritikotzat izaten ikastea
Hitzen atzean dagoena	Testuak landuz, sen kritikoa garatzea	Analisisa	Testuak eta galderak aztertzea, ondoren gogoeta egiteko	Besteen iritzien aurrean kritikotzat izatea

EBALUAZIOA

Beharbada, jarduera mota hauetako zatirik garrantzitsuena da. Ikuspegiak beti izan beharko luke Giza Eskubideak ezagutzea eta norberarengan trebezia hauek garatzea: errespetua, gogoeta eta kritikotasuna.




Jarduera bakoitzean errepikatzen ibili behar ez izateko, unitate didaktiko orokorrean aipatu dizuegu.


1. Ariketa. Lehen irudipena	
Helburua	Filmak pertsonaien bidez sorrarazten dituen berezko sentimenduak aztertzea
Ariketa garatzea	Galdera hauei buruzko gogoeta egitea: <ul style="list-style-type: none">• Zer iruditu zaizu filma?• Zer pentsatzen duzu protagonistei buruz?• Zer iruditu zaizu deigarriena?• Zure ustez, zergatik bidaiatzen dute horrela?• Istorio bat baino gahiago al dago?• Zein da istoriaren korapiloa?
Materiala	Prest izan filmeko fotograma batzuk, eztabaida bideratzeko.
	60 minutu
Oharrak	Garrantzitsua da ariketa hau lehenengo egitea, ikasleen lehen irudipenak aprobetxatzeko eta, batez ere, filmak haiengan sortu dituen zirrarak berezkoenak baliatzeko. Pentsatu film laburrak aitzakia emango dizuela Giza Eskubideen gaia hizpidera ekartzeko; era berean, ariketen bitartez, Giza Eskubideen eduki batzuk zehatzago aztertzeke aukera izango duzue.

2. Ariketa. 7 desberdintasunak	
Helburua	Gizarte hierarkiak ezartzera eramaten gaituzten gizarte desberdintasunaren inguruan gogoeta egitea
Ariketa garatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Banatu argazkiak biltzen dituen orria eta utzi denbora puska bat, ikasleek beren lehen irudipenak ager ditzaten. Ziurtatu badakitela nor diren pertsonaia ospetsuak eta, behin ariketa ongi ulertzen dutenean, utzi denbora puska bat, argazkian aurkitzen dituzten desberdintasun guztien gainean pentsatzeko. • Eskatu ikasleei bururatzten zaien gauza oro idazteko, inolako zentsurarik gabe. • Behin hitzak orrian idatzi dituztenean, gaia gelako talde osoak landuko du, iritzi guztiak agertzeko, bateratzeko. • Edukien zatian (3. puntua) dagoen informazioak lagunduko dizue ikasleen iritziak gizarte, ekonomia eta kultura arloan dauden desberdintasunekin lotzen.
Materiala	Orri argazkiduna eta horma-irudi handia, ikasleen iritziak idazteko
	45 minutu
Oharrak	<p>Era askotako bazterkeria sorrarazten dituzten estereotipoen eta aurreiritzien kontrako heziketa-lanarekin lotu dezakezue ariketa hau. Proposamen bat: hasi aurreiritzien eta estereotipoen teoria lantzen harik eta hainbat bazterkeria mota zerrendatu arte (generokoak, arrazakoak, erlijioak... etab.). Saiatu zerrenda bakoitza irakasgai desberdinetan banatzen, gaiari zeharka ekiteko eta irakasle guztien laguntza izateko.</p> <p><u>Eztabaida jarduerarako:</u></p> <p>Egjazkoak al dira gure pertzepzioak? Nola ezaba ditzakegu gure aurreiritziak? Zertarako balio dute estereotipoek? Bidegabeak al dira? Egia al dira? Nola eragiten dio gure izaerari "bestearen" begiradak?</p> <p>Nola definituko zenituzke hitz hauek: enpatia, ezagutza, aserfibilitatea, tolerantzia, bitartekaritza, identitatea... etab.?</p> <p>Oharra: jarduera honetako ariketak helbide honetan aurkitu ditugu: http://images.google.es/images?svnum=10&hl=es&lr=&q=gitanos http://www.flamenco.ru/flamenco/photo_galleries/images/cortesgitano.jpg soil-soilik erabilera pedagogikorako.</p>

2. Eranskina. 7 desberdintasunak

Idatzi eskuineko laukian eskuineko eta ezkerreko argazkien artean dauden 7 desberdintasunak, bai eta zer lotura ikusten dituzuen bien artean ere.





3. Ariketa: Identitatea eta kidegoa	
Helburua	Identitate eta kidego kontzeptuen arteko aldeak bereiztea
Jardueraren garapena	<p>Pertsona oro jatorri jakin batekoa da, eta jatorri horrek nolabaiteko identitatea ematen dio, jaioterriaren moldeen arabera holako edo halako erroez janzten du. Alabaina, bizitzeak berak batzuetan nahitaez dakartzan joan-etorrien ondorioz, pertsonak beste talde batzuetako kide bihurtzen dira, eta, ondorioz, beren identitatea aberastu eta konplexuago bihurtzen da.</p> <ul style="list-style-type: none">• Amin Maalouf-en testua irakurtzeko eta diosenari buruz hausnarketa egiteko eskatuko diegu ikasleei.• Jarraian, nork bere jatorrian, eta beren ustetan zein taldetako kide diren pentsatzeko eskatuko diegu.• Nork bere buruari pentsatu duena besteei kontatzeko eskatuko diegu, bateratze-lana eginez. Eztabaida galdera honen inguruan bideratzen saiatuko gara: zein alde ikusten duzue Identitate eta kidego kontzeptuen artean?
Materiala	6. eranskina
	Norberaren hausnarketa: 30 minutu Bateratze-lana: 30 minutu
Oharrak	Jarduera osatu egin daiteke hainbat gizataldetako kide izan diren pertsona ezagunen argazkiak bilatuz. Ikasle batzuen bizitza eta gorabehera pertsonalak ere lagungarri izan daitezke.


3. Eranskina: Identitatea eta kidegoa



"1976an Libanotik atera eta Frantzian ezarri nintzenetik, sarritan galdetu didate –asmorik onenarekin galdetu ere– ea frantsesago edo libanoarrago sentitzen naizen. Eta nire erantzuna beti berbera da: berdin sentitzen naiz bata zein bestea (...). Horregatik, eta galderaren harira, haxe azaltzen diet pazientzia handiz: Libanon jaio nintzela, eta bertan bizi 27 urte arte; nire ama-hizkuntza arabiera dela, eta arabieraz ezagutu izan nituela Dumas, Dickens eta Gulliverren bidaiak; eta nire arbasoen herri menditar hartan bizi izan nituela umetako pozak, eta entzun nituela gerora nobelak idazteko inspirazio-iturri izan nituen hainbat istorio eta pasadizo. Nola ahats nezake herri hori? Nola moztu bertara lotzen nauten erroak? Baina, bestalde, azken hogeita bi urtetan Frantziako lurretan bizi naiz, badira hogeita bi urte Frantziako ardoa eta ura edaten, egunero bertako harri antzinakoak ukitzen, hogeita bi urte nire liburuak frantsesez idazten, eta horregatik guztiagatik, nire bihotzean Frantzia ezin izango da inoiz lurralde arrotza izan. Orduan zer: erdi frantses, erdi libanoar? Ez, inolaz ere ez! Identitatea ez da zatikiez osatzen, ez da erdibitzen, ez da zatitzen, ez bitan, ez hirutan. Eta, hala ere, ez dut identitate bat baino gehiago, identitate bakarra dut (...). Gu guztiengan bat egiten dute hainbat kidegok".

Amin Maalouf

"Identidades asesinas" liburuaren zatia. Madril: Alianza, 2009

5. Ariketa Gure idoloek betetzen duten eginkizuna	
Helburua	-Hainbat kantutan adierazitako kultur desberdintasunak aztertzea.
Ariketa garatzea	<p>Eman ikasleei hainbat kantutako letrak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Clandestino-Manu Chao • Contaminame-Pedro Guerra • Erase una vez-Paco Ibañez • De amor y casualidad-Jorge Drexler • El emigrante-Celtas Cortos.... <p>Irakurri abestia, zer gai agertzen duen ikusteko, eta mundua zer-nola deskribatzen duen jakiteko. Ikasleek azaldutako ideiak jasoko ditugu; onena da ikasle batek besteek esandako guztia idaztea. Kontua da ikasleek egoera beraren aurrean zer ikuspegi duten eztabaidatzea. Iritzi bakoitza oso garrantzitsua da eta den-dena idatzi behar da.</p> <p>Gero, jarri musika eta abestu. Erreparatu letrari, eta batez ere, dibertitu musikarekin...</p> <p>Hitz egin ikasleek gustukoak dituzten pertsona ospetsuei buruz eta zergatik. Nolakoak dira? Nolako jantziak eramaten dituzte? Zertaz mintzatzen dira? Soziki konprometituak al daude? Nola?</p> <p>Gero, beste gai bati buruz hitz egingo duzue: ea bakoitza nola konprometitzen den bere errealitatearekin, familian, auzoan, elkarteetan, politikan... Bideratu eztabaida kontu honetara: zer-nolako ekarpena egiten diozu ZUK munduari?</p>
Materiala	Abestien eranskinak eta beren CDak. Arbela. Orri zuria eta bolaluma.
	Aldakorra
Oharrak	Protesta-kantuari buruzko ikerlan txikia egiteko eskatuko diegu ikasleei; pertsona ospetsu batzuen konpromiso aktiboari buruz; adibidez, U2 taldeko Bonori buruz.

CLANDESTINO (Manu Chao)

Europa- França



Solo voy con mi pena
sola va mi condena,
correr es mi destino
para burlar la ley.
Perdido en el corazón
de la grande Babylon,
me dicen el clandestino
por no llevar papel.

Pá una ciudad del norte
yo me fui a trabajar,
mi vida la dejé
entre Ceuta y Gibraltar.
Soy una raya en el mar,
fantasma en la ciudad,
mi vida va prohibida,
dice la autoridad.

Solo voy con mi pena,
sola va mi condena,
correr es mi destino
por no llevar papel.
Perdido en el corazón
de la grande Babylon,
me dicen el clandestino,
yo soy el quebra ley.

Mano negra clandestina,
peruano clandestino,
africano clandestino,
marihuana ilegal.

Solo voy con mi pena,
sola va mi condena
correr es mi destino
para burlar la ley.
Perdido en el corazón
de la grande Babylon
me dicen el clandestino
por no llevar papel.

CONTAMÍNAME (Pedro Guerra)

Kanariak



Cuéntame el cuento del árbol dáctil de los desiertos
de las mezquitas de tus abuelos,
dame los ritmos de las darbucas y los secretos
que hay en los libros que yo no leo.

Contamíname
pero no con el humo que asfixia el aire
ven
pero sí con tus ojos y con tus bailes
ven
pero no con la rabia y los malos sueños
ven
pero sí con los labios que anuncian besos

*Contamíname
mézclate conmigo
que bajo mi rama
tendrás abrigo*

Cuéntame el cuento de las cadenas que te trajeron
de los tratados y los viajeros,
dame los ritmos de los tambores y los voceros
del barrio antiguo y del barrio nuevo.

Contamíname...

Cuéntame el cuento de los que nunca se descubrieron
del río verde y los boleros
dame los ritmos de los buzukis, los ojos negros,
la danza inquieta del hechicero.

Contamíname...

ERASE UNA VEZ (Paco Ibáñez-Poema de José Agustín Goytisolo)

España



Érase una vez
un lobito **bueno**
al que maltrataban
todos los corderos (bis).

Y había también
un príncipe **malo**
una bruja hermosa
y un pirata honrado (bis).

Todas estas cosas
había una vez
cuando y soñaba
un mundo al revés (bis).

DE AMOR Y CASUALIDAD Jorge Drexler-Montevideo (Uruguay)



Tu madre tiene sangre holandesa,
yo tengo el pelo sefardí,
somos la mezcla de tus abuelos,
y tu, mitad de ella y mitad de mí.


El padre de tu madre es de Cádiz.
Mi padre se escapó de Berlín.
Yo vengo de una noche de enero,
tú vienes de una siesta en Madrid.

Tu madre vino aquí desde Suecia,
la mí ase crió en Libertad.
Tu madre y yo somos una mezcla,
igual que tú, de amor y de casualidad,
igual que tú, de amor y de casualidad.

Tu madre tiene los ojos claros,
yo un tatarabuelo en Brasil,
yo soy del sur, de Montevideo,
y tu mitad de allá y mitad de aquí.

En este mundo tan separado
no hay que ocultar de donde se és,
pero todos somos de todos lados,
hay que entenderlo de una vez.

Tu madre se crió en Estocolmo,
la mía en el sur de Tacuarembó;
tu madre y yo vinimos al mundo,
igual que tú, porque así lo quiso el amor,
igual que tú, porque así lo quiso el amor.

6 Ariketa. Hitzen atzean	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> Jarrera xenofobo eta arrazistak zergatik ematen diren pentsatzen jartzea, eta jarrera kontrajarriak aztertzea, hala nola onarpena eta tolerantzia. Irakurketaren ulermena eta material idatzia berrantolatzeko abilezia sustatzea. Testuak oinarritzat harturik, pentsaeraren garapena kitzikatzea.
Jardueraren garapena	<ol style="list-style-type: none"> 1) Ikasleei adierazi "parafraasiak" autorearen pentsaera adierazten duenez, norbere hiztegi eta sintaxiarekin eman dezaten. 2) Aurkeztu testu desberdinak (ik. eranskina) migrazioari eta tolerantziari dagozkionak, ikasle bakoitzak bat hauta dezan (edota irakasleak hala irizten badio ikasle bakoitzari bana eman). 3) Eskatu berridazteko baina bakoitzak bere hitzak erabiliz. 4) Egoki ikusiz gero, eskatu testu berdinak hautatu dituztenak elkarren ondoan jarri daitezela, lagunartean komentatu eta bertsio berria egin dezaten. Bestenaz, bakarka ere egin dezakete gauza bera. 5) Gero egin bateratze lana, galdera orri bat hartuz. 6) Azkenik, egin ebaluaketa bat idatziz, ekintzak izan duen ondorioa ezagutu ahal izateko.
Materiala	Fotokopiak iradokitako testuekin.
	Aldagarria.
Oharrak	<p>Ekintzaren baloraketa egiteko galderak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Zergatik uste duzu jendeak xenofobia edo diskriminazio jarrerak izaten dituela? Uste al duzu axaleko diskriminazio jarrera edo jokabideak direnek benetan diskriminazioa lantzen diren elkarte edo taldeetan parte hartzeraren eraman dezaketela? Uste al duzu beharrezko dela diskurtso bat eta jarrera garbi bat xenofobia eta diskriminazioaren aurrean hartzea? Inoiz sentitu al duzu diskriminazio egoerarik? Hala izanik, zergatia? Zein da zure konpromisoa arrazismoaren aurrean? <p>Iturria: http://www.aulaintercultural.org/IMG/pdf/Manual_valoracion_de_la_diversidad.pdf</p>

6 Eranskina. Hitzten atzean	
1. testua Carlos Fuentes (mexikar nobelista)	Herritar bezala, edonongo gizon edo emakume bezala – mundukoa ala lekukoa- aurreiritzei gogor egitea dagokigu, geure muga propioak zabaltea, emateko nahiz hartzeko gure gaitasuna gehitzea eta berdin harrigarri zaigunaren aurrean adimenaren gaitasuna gehitzea. Erabat osaturik ez den gure gizadia irakurtzeko ahaleginetatik at egitearekin pobretu egiten gara eta gure egiten badugu, aberasten. Izango ote dugu astirik gure kidekoak aurkitu, ukitu, izendatzeko eta gure beso artean hartzeko gaitasunik? Izan ere guretako inork ez du bere izatea onetsiko, lehenik ez badu besteen izatea onesten.
2. testua Virginia Wolf	Emakume naizenez ez dut aberirik. Emakume naizenez ez dut aberirik nahi. Emakume naizenez, mundu osoa da nire aberri.
3. testua Luís Eduardo Aute, La Belleza	Errebindikatzen dut ni neu izaten ahalegintzeko lilura, ezertarako bidaia hori, zeina ziur nagoen zure begiradan aurkituko dudala edertasuna.
4. testua Makiza, Haize-arrosa	Ez ukatu inoiz nondik heldu zaren, daukazuna daukazularik ere, zatozen lekutik zatozalarik ere, Danimarkatik ala Txiloetik etorri. Izan ere, Noeren kutxa handi bat da mundua eta ni hemendik at sortua banaiz ere, eta hobe indigena odolekoa banaiz, gauza ederra delako... Ni neu lurberako hiritarra naiz, frontera-mugetan sinesten ez duena.
5. testua Alba Lucia, El viaje de Ana	Inoiz, inoiz ez dugu arrazismoaz edo diskriminazioaz hitz egiten. Beldurrik gabe bizi daitezten nahi dut, biziera normala, segurua, bizi dezaten. Beldurra isilpean presente daramagun zerbait da. Gerta liteke denboraldi batean deus ez gertatzea, baina beldurra gurekin izaten dugu, gure baitan dagoelako. Ez nuke nahi beldurrak baldintzaturik ibiltzea, libreki hazten ikustea nahi nuke. Nire zeregina segurtasun inguru bat eskaintzea da, konfiantza osoz haz daitezten. Baina beldurra ezkutatu arren, hori hor dago beti. Batzuetan, uste dut diskriminazioa saihestea errudun izatea dela. Guztiok behar genuke erne ibili horrelakorik gerta ez dadin. "Bestea" sentiaraztearen arriskua, kalean, trenean, eskolan gertatzen da. Baina nola eraso horri bere bizitza baldintzatu gabe? Gauza konplikatu nolanahi ere. Nola eman defendatzeko tresnak eta aldi berean konfiantzaz bizi daitezten ahalegindu? Ni naiz beldurraren zaintzailea... bere ardura banu bezalaxe. Erne bizi naiz bakean haz daitezten ikusiz.
6. testua Alba Lucia, El viaje de Ana	(Sarrera gisa, 7. testuarekin batera joan behar du). "Eginahalak egin arren, zuretzat ni beti, atzeritarra izango naiz"
7. testua Gabriela Mistral, La Extranjera	Itsasalde barbaroen aireaz mintzo da, ez dakit nolako alga eta hondar kutsu batekin. Irudi gabeko jainkoari otoitz egiten dio, hiltzear legokeenaren zamapean bezala. (...) Laurogei urte biziko da gure artean baina berbera izango beti, intzirik bezala eta aberetxoetan tankeran mintzo da, eta ziur, gure artean hilko dela, zoritxarreko gauen batean, bere jomuga burukotzat duela, isil eta atzeritar heriotzaren baitan.
8. testua Joan Manuel Serrat, Te guste o no	Baliteke zuri gogoko izatea ala ez izatea, baina dena den badugu elkarrekin ikustekorik, zerupe berean, gutxi edo gehiago urdin dagoen zerupean, airea partekatzen dugularik eta eguzkia adoratzeko. Biok hiltzeko beldur berdina daukagu, ahulezia bera, bihotza, bi begi eta antzeko sexua eta amodiorako desira berberak eta halaber norbaitek maita gaitzan desira. Baliteke zuri gogoko izatea ala ez, baina zorionez desberdinak gara berebat, nik emazte bat daukat, zuk multzo bat, zuk lurra lantzen duzu, ni itsasoan zehar nabil. Zure hizkuntzan zuk biraoak, nik katalanez... ni zuria eta zu ikatza baino beltzagoa eta, begira, ez dakit zer gogoko dudan gehien, gure arteko ezberdintasuna ala biok pareko egiten gaituena. Zuri gogoko izan ala ez, bi aldetatik onartzen zaitut: berdintasunak indarberritu egiten nau, ezberdintasuna bizkorgarri gertatzen zait. <i>Iturria:</i> http://www.aulaintercultural.org/IMG/pdf/Manual_Valoracion_de_la_diversidad.pdf

Jarduerak

Gida honetan proposatzen dizkizuegun fitzez gainera, badira beste jarduera batzuk Giza Eskubideei buruzko kontzientzia sustatzen lagunduko dizuetenak; era horretan, hezkuntza-lana modu zabalagoan eta osatuagoan egin ahal izango duzue.

Giza eskubideekin zerikusia duten efemerideak

Giza eskubideen inguruko efemerideak didaktika eta hezkuntzarako erabiltzea oso egokia izan daiteke bizikidetzarako bakea behar dela azpimarratzeko; azpimarra itzazue, modu positiboan, giza eskubideekin zerikusia duten eta gainditu gabeko egoera batzuk gogorazteko baliagarriak diren alderdi desberdinak.



Datak:

Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna, azaroaren 20a

Giza Eskubideen Eguna, abenduaren 10a

Bakearen Aldeko Eskola Eguna, urtarrilaren 30a.

...

Ikastetxe arteko ekintzak

Hainbat ikastetxek batera jarduerak egitea oso mesedegarria da ikastetxeetako profesionalen arteko lankidetzarako, eta gainera harremanetan jarriko ditu auzo eta herrietako neska-mutilak.

Elkartasun-kanpainak

Kanpaina bereziak oso baliagarriak izan daitezke gauzak elkarrekin banatzen ikasteko, axolagabeak ez izaten ikasteko, eta ikasleak Hirugarren Munduari laguntzen dieten GGKEekin eta berdintasuna eta justizia sustatzen duten erakundeekin harremanetan jartzeko.

Honako jarduerak egin ditzakezue: GGKEekin elkarlanetan aritzea eta proiektuetan parte hartzen duten boluntarioen lekukotasunak eskaintzea edo Giza Eskubideen aldeko kanpaina eta erakundeetan parte hartzea.

Ikastetxeen arteko korrespondentzia eta trukeak

Ikastetxeen artean korrespondentzia trukatzeari oso egokia izan daiteke beste errealitate batzuei buruzko komunikazio-premiak betetzeko, beste leku eta kultura batzuen inguruko jakin-mina pizteko edo beste hizkuntza eta kultura batzuen ikasketan teknika berezi moduan erabiltzeko.

Aukera ditzakegun harremanak:

Etengabeko korrespondentzia izan dezakezue maila bereko ikasgelen artean, Espainiako erkidego bereko beste ikastetxe batzuekin edo munduko gainerako lekuetako ikastetxeekin. Bereziki interesgarria da zenbait pertsonen "etsaitzat" hartzen dituzten herrialde edo lekuetakoak izatea.

Giza Eskubideei buruzko aldizkariak edo argitalpenak

Giza eskubideen defentsa sustatzen duten aldizkarietan idaztera anima ditzakezue; era horretan ikasleen lanak eta komunikazioak zabaltzen eta ezagutarazten lagunduko duzue. Idazketa oso egokia da ikerketa eta arte arloan ikasleen sormena bultzatzeko eta eskolan bertan kultura-ekoizpenak aurrera ateratzeko.

Antzerkia eta giza eskubideak

Antzerkiak gorputz adierazpena eta hizkuntza dramatikoa lantzeko aukera ematen du, eta aldi berean, ikasleek antzezten dituzten obrak abiapuntu harturik, gai jakin batzuei buruzko sentsibilizazioa ahalbidetzen du.

Antzerki-emanaldiak, txotxongilo-erakustaldiak eta abar proposa ditzakezue. Ikasleek berek sortutako testuak edo berdintasunari eta justiziarri buruzko beste obra batzuetako testuak erabil ditzakezue. Horiei buruz eta horietan agertzen diren sentimenduei buruzko iruzkina egin.

Ikastetxeko liburutegia

Bakea, gatazka eta giza eskubideei buruzko Haur eta Gazteentzako liburu aukeratuak eskaini behar zaizkie ikasleei irakurtzearen plazera eta pentsamendu kritikoa sustatzeko.

Proposatzen dizuegu liburu horietakoren bat irakurtzea eta gero foro bat egitea, edo bestela pertsonen eskubideen aitortzea sustatzen duten testuak sortzea.

Erakusketak:

Erakusketak oso egokiak dira, gai bat norberaren iritziaren arabera eta talde osoaren ikuspegi orokorraren arabera lantzeko aukera ematen baitute.

Beren edukiengatik interesgarriak diren gaiak aukera ditzakezue, eta horien berri emateko neska-mutilen sormena sustatzen duen moduren bat bilatu: adibidez, grafiti bat egin. Gero, sail desberdinetan sortutako lanak ikastetxeko guztiei aurkeztuko zaizkie. Komunikazio-bide gisa eta eskola-inguruneaz kontzientzia hartzeko bide gisa ere erabil daiteke.

Gure proposamenak: Kartelak, collageak, eranskailuak, marrazkiak, ikus-entzunezkoak. Bakea eta giza eskubideen defentsa aldarrikatu duten pertsonen buruzko erakusketak. Bakearen aldeko txiste grafikoaren bilduma

Lankidetzajolasak

Didaktika eta hezkuntza helburuetarako erabiltzen direnean oso proposamen egokiak dira, jolas egite hutsaren atseginez gozatzen erakusten baitute, eta ez dago galtzailerik. Lankidetzajolasak eta komunikazio-modu desberdinak ezagutzen laguntzen dute. Giro aktibo, parte-hartzaile eta komunikatzailea sortzen laguntzen dute. Errealitatea ezagutzeko esperientzia eskaintzen digute.

Pedagogia, jolas, partaidetzajolasak eta sormenerako tresna gisa erabiltzen dugu. Giro positiboa sortzen laguntzen du. Jolas ez-lehiakorrek oso esperientzia onuragarria dira taldearentzat.

Jolas motak ¹:

Finkapen, ezagutza, konfiantza, komunikazio, lankidetzajolasak eta gatazka-konponbiderako jolasak.

¹ Paco Cascón-en "La alternativa el juego 1 y 2" delakoan begira dezakezue.

Lankidetza-jolasak

Nork bere burua finkatzeko jolasak

Horien helburua da pertsonaren autokontzeptua garatzea eta taldean finkapen hori sustatzea. Pertsonen edo taldearen alderdi positiboak bultzatzen dituzte.

Era berean, aukera ematen dute norberaren premiak ezagutzeko eta horiek giro egoki batean adierazteko, taldearen barruan onarpena eta integrazioa areagotzeko. (Ezaugarrien zerrenda, gaitasunen silueta, ondo egiten ditudan gauzak...)

Ezagutza-jolasak

Taldea osatzeko lehenengo urratsetako bat da; elkar ezagutzeko aukera ematen die parte-hartzaileei.

Nork bere burua aurkeztea eta gure gaitasunak eta zaletasunak azaltzea, baldintza jakin batzuk betetzen dituen norbait bilatzea, atsegin zaizkigun gauzen zerrenda aurkeztea, maizterren jolasa egitea gure izenak esanez...

Konfiantza-jolasak

Nork bere buruan eta taldean duen konfiantza probatzeko eta sustatzeko ariketa fisikoak. Aldez aurretik taldeko kideek elkar ezagutu behar dute.

Konfiantza garrantzi handikoa da: elkartasunezko jarrerak sustatzeko, ahalegin handiagoa eskatzen duen talde-lana prestatzeko, gatazkei aurre egin edo erabakiak hartzeko.

Bi baldintzatan oinarritzen dira: Taldearen barruan jarduteak sortzen dituen baldintzak: erreakzioak, bulkadak, beldurrak, esperientzia atsegingarriak. Besteekiko eta ingurunearekiko gure harremanaren ohiko erreferentzia-puntuak aldatzea.

Komunikazio-jolasak

Komunikazioa bizkortzeko helburua dute eta taldean norabide bakarreko hitz-komunikazioa hautsi nahi dute. Entzuketa aktiboa eta hitzezko komunikazioaren mezuaren zehaztasuna sustatzea. Hitzezkoa ez den komunikazioa eta harreman estuagoak eta irekiagoak bultzatzea.

Adibidez, marrakia deskribatzea, mimikaren bidez zerbait asmatzea, mezu bera hainbat laguni ematea, papertxoak ematea...

Lankidetza-jolasak

Harreman lehiakorrek gainditzeko ballabide garrantzitsuak dira. Jolas hauek helburu komuna dute eta sormenezko lankidetzarako espazio bat sortzen dute.

Lankidetzazko aulkiak, talde-antzezpenak...

Gatazkak konpontzeko jolasak eta teknikak

Helburua da horiek deskribatzen ikastea eta zergatiak, elkarreraginak, erreakzioak eta abar ezagutzea.

Gatazkak konpontzeko teknikak, rol-jolasak.

Jolasen ebaluazioa

Jolas bakoitzaren parterik garrantzitsuena da (metodo sozio afektiboa) horrek aukera ematen baitigu ikasleak bere buruarekin eta besteekin nola sentitu den aztertze eta konpartitzeko, jarduera aztertze (erreakzioak, sortu diren egoerak) eta eguneroko bizimoduan gertatzen diren antzeko egoerak balioesteko, nola konpondu diren eta zergatik ikusteko.

6. Egizu zerbait

<http://www.apdha.org/enlaces/enlaces.htm> - top%23top

Giza Eskubideen Aldeko Erakundeak

Globalizazioaren aurkako mugimenduak
Migrazioak
Giza Eskubideei buruzko baliabideak
Bake eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntza
Nazioarteko Elkartasuna
Emakumeak
Sindikatuak

Giza Eskubideen Aldeko Erakundeak

Giza Eskubideen Aldeko ONUren Goi Komisariaren Bulegoa
Nazioarteko Amnistia Espainia
Marokoko Giza Eskubideen Aldeko Elkarte (AMDH)
Maiatza Plazako Amak Elkarte
Human Rights
Torturaren Aurkako Taldea
Equipo Nizkor: Giza Eskubideak Latinoamerikan
Maiatza Plazako Amonak
Human Rights Watch
Giza Eskubideen Aldeko Nazioarteko Federazioa
FIAN: Elikatzeko Giza Eskubidearen alde
INCHRIRI: Giza Eskubideak Merkataritzan eta Inbertsioetan
Rigoberta Menchú Fundazioa
Maghreb des droits de l'Homme
San Pedro Nolasco GKE

Globalizazioaren aurkako mugimenduak

RCADE: Red Ciudadana por la Abolición de la Deuda Externa
Attac Nazioartekoa
Attac Madrid
Maastrich-eko Europaren aurkako mugimendua
Portoalegreko Munduko Gizarte Foroa 2002
Via Campesina
Erresistentzia Globaleko Mugimendua
Sevillako Gizarte Foroa
Europako Gizarte Foroa
<http://www.apdha.org/enlaces/enlaces.htm> - top%23top

Migrazioak

Zaragozako Abokatuen Elkargoko Atzerritarrei buruzko Web orria
Etorkinen Informazio eta Laguntzarako Taldea (GISTI-Francia)
SOS Racismo Madrid
Andalucía Acoge
IOÉ kolektiboa
<http://www.apdha.org/enlaces/enlaces.htm> - top%23top

Giza Eskubideei buruzko baliabideak

Giza Eskubideei buruzko Baliabideak Interneten Pangea
Zaragozako Unibertsitateko Giza Eskubideei buruzko Zerbitzaria
Pangea: Internet Solidarioa
Kontrainformazioa Nodo50
UNESCOren Bakearen eta Giza Eskubideen Aldeko Katedra
Granadako Unibertsitateko Kulturarteko Ikerlanetarako Laborategia
Bakerako Ikerketa Zentroa
Minesottako Unibertsitateko giza eskubideei buruzko baliabideak (gaztelaniaz)
Behartutako desagertuenak
MoveOnPeace
<http://www.apdha.org/enlaces/enlaces.htm> - top%23top

Bake eta Giza Eskubideen Aldeko Hezkuntza

Edualter
Apdhe-ren Bake Hezkuntza Mintegia
<http://www.apdha.org/enlaces/enlaces.htm> - top%23top

Nazioarteko Elkartasuna

Intermon
Askapen Nazionalerako Fronte Zapatista
Sodepaz
Arabiar Kausaren Aldeko Elkartasun Batzordea
Kanal solidarioa
Garapenerako GKEen konfederazioa (CONGDE)
Fronte Polisarioaren Espainiako Ordezkaritza
ACSUR Las Segovias
Mugarik gabeko Medikuak
Saharar preso eta desagertuen aldeko elkarteak
<http://www.apdha.org/enlaces/enlaces.htm> - top%23top

Emakumeak

Afganistaneko emakumeak
Emakumeak Sarean
Emakumeen Giza Eskubideen aldeko Plataforma
Espainiako Estatuko Erakunde Feministen Federazioa
Sexu Erasoen Biktimei Laguntzeko Elkartea
Afganistaneko Emakume eta Haurrentzako Giza Laguntza (HAWCA)
Andaluziako Emakume Progresistak
<http://www.apdha.org/enlaces/enlaces.htm> - top%23top

Sindikatuak

ELA
SOC-MR
USTEA
CC.OO.
UGT
CGT
<http://www.apdha.org/enlaces/enlaces.htm> - top%23top

Beste zenbait

Ecologistas en Acción

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Konfederazioa

World Watch

Granadako Kontsumo Arduraturako Kanpaina

Drogamenpekotasun eta Hiesarako federazioa - Esteka

Greenpeace

Bidezko Merkataritzaren Estatuko Koordinakundea

A pulso

Melillako Iruzur eta ustelkeriaren aurkako plataforma

<http://www.apdha.org/enlaces/enlaces.htm> - top%23top

7. Gehiago jakiteko...

Sarean dauden hezkuntza-baliabideak

Arrazismoa eta Xenofobia: Kulturartekotasunaren gatazka Orientabideak.

URL: <http://www.pntic.mec.es/revista3/junio/entrecul.htm>

Manuel Méndez Santamaría

Telémaco kultur aldizkarian argitaratutako artikulua: Kulturartekotasuna diogunean inguru berean dauden kultura desberdinen arteko bizikidetza gatazkatsua adierazi nahi dugu. Ingurune hori kultura horietako bati dagokio, guk nagusizat hartzen dugun horri hain zuzen, eta beste kulturak berriz, minoritarioak dira. Hezkuntza arduratsu baterako ondorioak.

Balioetan hezteak: bakerako hezkuntza

URL: <http://www.pntic.mec.es/98/diciembre/paz1.htm>

Manuel Méndez eta Pilar Llanderas

Ikastetxearen ikasketa-proiektuan arrazakeriaren eta jarrera xenofoboaren tratamendua eta aniztasunaren ezagutza sartzeko baliabideak.
Telémaco kultur aldizkarian argitaratutako artikulua

Bizikidetza hezkuntza-ingurunean: 1. Kulturartekotasuna. Alderdi Orokorrak. 2. Gizarteratzea. 3. Intolerantzia. 4. Intolerantzia II

URL: <http://centros5.pntic.mec.es/cpr.de.la.latina.carabanchel/convivir/interc.html>

Jesús Martín María Cabeza

Bizikidetzaren gaia aztertzeko proposamenak; Europako "Convivir es Vivir" deritzan nazioz gairik programaren barruan irakasleak prestatzea, ikastetxeetan bizikidetza hobea lortu ahal izateko.

Unitate didaktikoaren gida: Berdinak gara, desberdinak gara

URL: <http://www.pntic.mec.es/recursos/secundaria/transversales/igua-dif.htm>

Madrid-Mendebaldeko Hezkuntzako Lurralde Zuzendaritzaren Osabidezko Hezkuntzako irakasleek prestatua.

Kulturartekotasunaren inguruko gogoetak eta kontzeptu-azterketak eta jarduera didaktikoetarako proposamenak. Bigarren Hezkuntzarako prestatua.

D.B.H.ko 4. ikasturteko Etika arloko programazioa.

URL: <http://centros5.pntic.mec.es/ies.principe.de.asturias/Etica4.htm>

I.E.S. "Príncipe de Asturias". Lorca

Etika irakasgaia prestatzea Aniztasunaren zehar-gaia lantzeko.

Geure jostailuak egiten ditugu

URL: <http://www.pntic.mec.es/recursos/infantil/transversales/juguetes.htm>

Paz Núñez Monforte eta Susana Marín Sanz.

Gerrakoak ez diren jostailuak egitea hondakinak erabiliz: Haur Hezkuntzarako lan-proposamena. Esperientzia honen bidez zeharkako hiru gairi buruzko alderdiak landu daitezke, horien artean bakea.

Indioak gara. Mozorroak hezkuntza-baliabide gisa erabiltzea zeharkako gaiak lantzeko

URL: <http://www.pntic.mec.es/recursos/infantil/transversales/disfraces.htm>

Paz Núñez Monforte eta Susana Marín Sanz.

Haur Hezkuntzarako lan-proposamena, Komunikazio eta Antzezpen Arloko Ingurune Fisiko eta Sozialaren Arloan sartua. Era berean, oso gida baliagarria da Zeharkako Gaietako dagozkien alderdi batzuk lantzeko, adibidez: berdintasuna, besteenganako begirunea, tolerantzia, ingurumenaren babesa.

GKEak Eskolan

URL: <http://www.pntic.mec.es/recursos/infantil/transversales/ongs.htm>

Paz Núñez Monforte eta Susana Marín Sanz.

Hainbat GKEk prestatutako hezkuntza-materialen bilduma hau Haur Hezkuntzako zeharkako gaiak lantzeko erabiltzen da. Material bakoitzarekin batera fitxa bat dator eta bertan haren interes didaktikoari buruzko iruzkinak agertzen dira.

Elkartasunean hezte

URL: <http://www.pntic.mec.es/recursos/primaria/transversales/vaquita.html>

Mercedes García Ruiz, Javier Pérez Llorente, Alberto Rodríguez Felipe, Ruth Rodríguez Ríos, Rocío Segura Rodríguez, Ana María Suárez Gea eta Natalia Villalobos Vencelá.

Bakerako Hezkuntzari dagozkion gaiak aztertzen ditu eta Jarduera Koadernoan du ikasleentzat. Lehen Hezkuntzarako prestatua.

Film baten azterketa estetiko eta etikoa

URL: <http://www.pntic.mec.es/recursos/secundaria/transversales/paz2.html>

Marta Soria eta Pablo Arnau

M. Manchevski-ren "Before the Rain" filma aztertuz, nahi dugu ikasleek hizkuntza zinematografikoaren bidez jaso dituzten balio moralak (tolerantzia, elkartasuna, aniztasuna) bereganatzea, eta espainiar curriculumaren zeharkako gaietako buruzko gogoeta egitea. Material didaktikoen fitxategi trinkotuak ere eskura daitezke: I Eranskina, filmaren iruzkina egiteko gida. Kontakizun mitikoa genero humanistikoaren barruan, II. Eranskina, filma ikusteko gida: osagai teknikoak, formalak eta estetikoak. .

Desberdintasunen hiria, arrazakeriaren, xenofobiaren eta antisemitismoaren aurkako erakusketa

URL: <http://www.pntic.mec.es/pagtem/babel/>

Baruch Spinoza Fundazioa.

Argazki Erakusketa birtuala; gaiak ikasgelan aztertzeko beharrezko iruzkinak ematen ditu. Bere helburua da intolerantziarako jarrerak eta jokabideak erakustea, gogoeta sustatzea eta jarrerak aldatzea. Bigarren Hezkuntzarako prestatua.

Informazioa eta baliabideak beste zerbitzari batzuetan:

“Creceer con Derechos” proiektua

URL: <http://www.ucm.es/info/quiron/crecer.htm>

Hezkuntza Fakultatea – Irakasleen Heziketa Zentroa – Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea

Oso material didaktiko interesgarriak dituen proiektu honen bidez haurrek beren eskubideei buruz kontzientzia handiagoa hartzea lortu nahi da. Ekimen horretan oso kontuan hartu da XXI. Mendeko Hezkuntzarako Nazioarteko Batzordearen Txostenaren gomendioa, aurrerapen teknologiko berriek ematen dizkiguten aukerak hobeto aprobetxatu behar direla baitio.

EDUALTER, Bake, Garapen eta Kulturartekotasunerako Hezkuntza baliabideak sarean

Katalana, galegoa, euskara eta gaztelania.

URL: <http://www.pangea.org/edualter/>

Hainbat eratako materialak (liburu eta artikuluen fitxak, bideoak, dokumentuak) Bakearen, Kulturartekotasunaren eta Garapenaren Hezkuntzarako. Material horien fitxategi trinkotuak eskura daitezke PDF formatuan.

Fundació per la Pau

Katalana, gaztelania, ingelesa

<http://www.pangea.org/perlapau/>

Dokumentuak eta baliabideak sarean, bereziki “Boletín de la Fundación por la Paz” argitalpena. Fundazioak Baliabide eta Dokumentazio Zentroa du eta hainbat mintegi antolatzen ditu, bakearen defentsa, desmilitarizazioa, indarkeria-eza eta elkartasuna aztergai hartuta.

Espainiako Gazteriaren Kontseilua (CJE)

URL: <http://www.cje.org/tolerancia/toleraindex.htm>

Material asko eta oso egokiak ditu eta fitxategi trinkotuak eskuratzeko aukera ematen du. CJEk era askotako edukiak eskaintzen ditu bere zerbitzarian: abian diren kanpainak, Aniztasunaren aldeko Agiria, Kulturarteko Hitzordua, Kulturarteko Jolasa, Albisteak, legegaxedapenak eta abar.

Kulturarteko Hezkuntza

Ingelesa, frantsesa, alemana eta gaztelania

URL: <http://www.solidar.org>

SOLIDAREn Web orria. Erakunde honek Gizarte Ongizatea, Hezkuntza Iraunkorra eta Garapen Iraunkorra bultzatzen duten hainbat GKE elkartzeko ditu. Europako Batasunaren laguntza du.

Gizarte Ingurunea

Gaztelania, katalana, euskara, alemana, ingelesa eta frantsesa.

URL: <http://www.entornosocial.es>

Argitalpen elektronikoa hau hainbat biztanle-talderekin (adinekoak, ezgaituak, adin txikiak, emakumea, gaztea, etorkinak, bazterturik dauden pertsonak eta abar) lan egiten duten erakundeentzat eta gizarte-arreta eta zerbitzuak eskaintzen dituzten zentroentzat egina da.

Arrazismoaren aurka lanean ari diren GKEen arteko lankidetzak.

Ingelesa, alemana eta gaztelania.

URL: <http://www.fight-racism.org>

GKEen orrialdea, esteka, iritzi eta albisteekin.

Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea, Europako Kontseilua.

Ingelesa eta frantsesa

URL: <http://www.ecri.coe.fr>

ECRIren orri ofiziala. Bere jarduerari buruzko dokumentu ofizialak ditu, datu soziologikoa eta hezkuntza-material oso egokiak (hezkuntza-paketeak, baliabide grafikoak eta bideo trinkotuak eskuratzeko moduan).

1997 European Year Against Racism

Gaztelania, ingelesa, alemana.

URL: <http://europa.eu.int/en/comm/dg05/1997/cover.htm>

Glosategia; arrazakeriari buruzko liburu eta filmen kritikak; arrazakeriaren aurkako borrokarako jardunbide egokiak; heziketa-ekimenak, esperientzien zabalkundea, hezkuntza-proiektua; Lehiaketak; Legeria; hori dena Europako eremuaren barruan.

Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa – Nazioarteko Bulegoa

Ingelesa, frantsesa, alemana

URL: <http://www.unhcr.ch>

Unitate didaktikoa eta jarduerak prestatzeko moduluak, Hizkuntza eta Literatura, Arteak, Historia, Geografia eta Gizarte Hezkuntza arloetan. Lehen Mailako Hezkuntzako Hirugarren Ziklorako (10-12 urte) eta Bigarren Hezkuntzarako: dena ingelesez. Material batzuk frantsesez.

CIPIE, Inmigrazioaren Behatoki iraunkorra

URL: <http://www.eurosur.org/CIPIE/prensa.htm>

Espainiako prentsan, irrati eta telebistetan inmigrazioari buruz diotena aztertzen du. Hedabideei buruzko txosten interesgarriak; sarean argitaratuak.

“Desberdinak Gara, Berdinak Gara” dokumental-baliabideei buruzko gida. -0) Madrid, 1995

URL: <http://www.eurosur.org/RACIS/portada.htm>

Arazakeria, Xenofobia, Antisemitismoa eta Intolerantziaren aurkako Gazteriaren Europako Kanpainaren Espainiako Batzordeak egindako gida da eta gai horietaz arduratzen diren pertsonen, hezitzaileen, ONGei eta oro har elkarte-mugimenduari beren lana egiteko tresna baliagarri bat emateko helburua du.

Secretariado General Gitano Elkarte

URL: <http://www.asgg>

Bibliografia, ikus-entzunezko material eta prentsako berri laburrei buruzko datu-baseak.

United for Intercultural Action European Network against nationalism, racism, fascism and in support of migrants and refugees

Ingelesa

URL: <http://www.united.non-profit.nl/>

Arazakeria eta diskriminazioaren aurkako borrokaren inguruko gaur egungo gaiak aztertzen dituzten informazio-liburuxka interesgarriak.

Errefuxiatuentzako Baliabideen Gida

URL: http://www.eurosur.org/IEPALA/guia_ref

Espainian errefuxiatuentzat lan egiten duten erakunde garrantzitsuenak identifikatu eta horietan eta beren zerbitzuetan jasotako informazioa zorrotz prozesatu ondoren osatutako gida da. Espainian errefuxiatu-egoera legez onartzeko aukera ematen duten tresna juridikoen bilduma eta errefuxiatuen eskubideen babesa bermatzen duten neurrien aplikazioa hartzen du bere barruan.

Revista Internacional de Ciencias Sociales

URL: <http://www.unesco.org/issj>

UNESCOk 1949. urtean sortu eta hiru hilean behin argitaratzen da aldizkari hau sei hizkuntzatan: Ingelesa, frantsesa, gaztelania, arabiera, txinera eta errusiera. Balio handiko datu-baseak ditu.

Manifiesto 2000

URL: <http://www.unesco.org/cpp/sp/index.html>

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2000. urtea Bakerako Kulturaren Nazioarteko Urte izendatu zuen eta UNESCOk horren inguruko jarduerak koordinatzen ditu mundu osoan. Bakearen Nobel Saridunek proposatu dute Bakearen eta indarkeria-ezaren kulturarako Manifiesto 2000 delakoa egitea, gizakiek dagokien erantzukizuna beren gain har dezaten: ez da deialdi bat, ez da goi mailako erakundeei helarazitako eskaera bat. Gizaki bakoitzak bake-kultura sustatzen duten balioak, jarrerak eta jokabideak benetan gauzatzeko duen erantzukizunari dagokio. Eraikuntza-lanetan.

Balioetan Hezteko materialak

Katalana eta gaztelania

URL: <http://www.xtec.es/recursos/valors/valors.htm>

Kataluniako Hezkuntzarako Informatika Programako zerbitzariaren orria da. Bere Datu Base bibliografikoak honako gaiak hartzen ditu: Kontsumoa, Giza Eskubideak, Garapenerako Hezkuntza, Bakerako Hezkuntza, Moralaren Hezkuntza, Bide Hezkuntza, bi sexuentzako aukera-berdintasuna, Kulturartekotasuna, Ingurumena, Gogoeta etikoa, Osasuna, Sexualitatea eta Tutoretza. SENDERik (Herri Kulturarako Zerbitzuen Fundazioak) prestatu du.

Arrazakeria, xenofobia eta antisemitismoari buruzko eta Arrazakeriaren aurkako Europako Urteari buruzko ebazpena (1997) – B4-0045/97

URL: <http://www.europarl.es/correo/postales/racismo.html>

AFS-Kultura artekoa – Hezkuntza Orokorrerako Programa

URL: <http://www.afs-interculturala.org/index.html>

Moldaketa erraz batzuk eginda erabil daitezkeen material didaktikoak, gai hauek lantzeko: Giza Eskubideetan Heztea, Kulturarteko Hezkuntza, Boluntarioentzako Hezkuntza eta Kontzientzia orokorra.

Averroes, Andaluziako Hezkuntzarako Sare Telematikoa

URL: <http://averroes.cec.junta-andalucia.es/www/inmigrantes/enlaces.html>

Kulturartekotasun eta Hezkuntzari buruzko esteken bilduma interesgarria; informazioa erabili daitezkeen hezkuntza-mailak eta horiei buruzko baliabideak azaltzen dira.

Zeharkako Gaietarako Programa – Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza – Madrilgo Erkidegoa

URL: <http://platea.pntic.mec.es/cam/srp/transversales/Transversales.html>

Funtsean, irakasleen prestakuntzarako ikastaro-eskaintzak dira.

Garapenerako hezkuntza, gatazkak eta era horretako beste gai batzuetan zuzenean lan egiteko eta jarduera zehatzak antolatzekeko materialak.

Teknika eta estrategia didaktikoak

Mundópolis II Fasea. Garapenerako hezkuntza-tailerrak HEGOA: Bilbao, 1997. 172, 174, 176 eta 178. or.

Tekniken Koadernoak

"Eta zuk... zer diozu? Proiektua, ACSUR-Las Segovias, garapenerako hezkuntza-arloa.- Madril, 1995

Nola prestatu gidoi didaktikoak?

Mundópolis II Fasea. Garapenerako hezkuntza-tailerrak. HEGOA: Bilbo, 1997. 154. or.

Irudi batekin egin ditzakegun lanen zerrenda

Pedro Saez. Gatazken Gakoak. Garapenerako hezkuntza-gida didaktikoak. CIP: Madril, 1997.76-77 or.

Argazki-erakusketak

Nola prestatu "Mundu bakar bateko astea"

Mundu bakar bateko astea. ACSUR/CIP/CJE: Madril, 1977. 11-13 or.

"Munduaren egoera" lehiaketa

Mundu bakar bateko astea. ACSUR/CIP/CJE: Madril, 1997. 14-17 or.

Gazteen eskubideen enkantea lehiaketa

Mundu bakar bateko astea. ACSUR/CIP/CJE: Madril, 1997. 20-26 or.

Mina-joko polemikoa

Mundu bakar bateko astea. ACSUR/CIP/CJE: Madril 1997 31-36 or.

Haize-arrosa

Jarduerak

- Albatros. Kultura desberdin batekin topo egitea. Kultura-aurreiritziei buruzko jarduera
- AVE trenak. Indarkeriarik gabeko ekintza-metodoak pentsatzeko jarduera. Roleplaying
- Kulturarteko aniztasunerako jarduera. Kulturartekotasuna
- Jarduera. Marginazio-estereotipoak.
- Ikus-entzunezko Baliabidea: "La clase dividida" bideoaren erreferentzia. Ikuspegi sozio-afektiboa.

Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala



Hitzaurrea

Kontuan izanik munduko askatasuna, justizia eta bakea giza familiako kide guztien berezko duintasunean eta eskubide berdinean eta ukaezinetan oinarritzen direla;

Kontuan izanik giza eskubideak ez ezagutzearen eta gutxiestearen ondorioz, giza kontzientziari irain egiten dioten basakeriak gertatu izan direla; eta gizon-emakumeek, beldur eta gabezia orotik aske, hitz egiteko askatasuna eta sinesmen-askatasuna izango dituzten munduaren etorrera aldarrikatu dela gizakiaren helburu nagusi;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia-tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurkitu ez dadin;

Kontuan izanik ezinbestekoa dela, baita ere, herrialdeen artean harreman lagunkoiak bultzatzea;

Kontuan izanik Nazio Batuetako kide diren herriek gizakiaren oinarrizko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean duten fedea tinko azaldu dutela Agirian; eta, askatasunaren ikuspegi zabalago baten barruan, gizarte aurrerakuntza sustatzeko eta bizitza-maila jasotzeko erabakita daudela adierazi dutela;

Kontuan izanik Estatu Kideek, Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean, gizakiaren oinarrizko eskubide eta askatasunen begirune orokorra eta eraginkorra ziurtatzeko hitza eman dutela;

Kontuan izanik emandako hitz hori osotasunean betetzeko garrantzi handikoa dela eskubide eta askatasun horiek berdinean ulertzea;

BATZAR NAGUSIAK

GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN

UNIBERTSAL HAU EGITEN DU

Herri eta nazio guztiek izan beharreko jomuga legez, bai norbanakoek eta bai erakundeek. Aldarrikapen honetan etengabe oinarrituta, alde batetik, eskubide eta askatasun hauen begirunea bultzatzea dezaten irakaskuntzaren eta hezkuntzaren bidez eta, bestetik, nazio mailan eta nazioarte mailan arian-arian neurriak hartuz, era eraginkorrean eta orokorrean ezar daitezkeen ziurtatzeko, bai elkarkide diren estatu-tako herrien artean eta baita horien eskumenpean dauden lurraldeetan ere.

1. atala

Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.

2. atala

Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik.

Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituen.

3. atala

Norbanako guztiak dute bizitzeko, aske izateko eta segurtasunerako eskubidea.

4. atala

Inor ez da izango besteren esklabu edo uztarpeko; debekatuta dago esklabutza eta esklabuen salerosketa oro.

5. atala

Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere.

6. atala

Edozein gizon-emakumek du, nonahi, lege-nortasundun dela aitortu diezaioten eskubidea.

7. atala

Gizon-emakume guztiak berdinak dira legearen aurrean eta denek dute, bereizkeriarik gabe, legezko babes izateko eskubidea. Denek dute Aldarrikapen hau hausten duen edozein bereizkeriaren aurka eta bereizkeria horren eragileen aurka babes berbera izateko eskubidea.

8. atala

Pertsona orok du Konstituzioak edo legeek gizon-emakumeei aitortzen dizkieten oinarriko eskubideak hausten dituzten ekintzetatik babesteko, norbere herrialdeko auzitegi aginpidedunetan errekurso eraginkorra jartzeko eskubidea.

9. atala

Inor ezingo da arrazoirik gabe atxilotu, preso hartu edo erbesteratu.

10. atala

Pertsona orok eskubidea du, berdintasun osoan, auzitegi burujabe eta alderdikeriarik gabean jendaurrean hitz egin eta zuzentasunez entzun diezaioten, nahiz bere eskubide eta betebeharrak erabakitzeko, nahiz bere aurkako salaketa penalak aztertzeko.

11. atala

1. Delituagatik salatutakoak eskubidea du errugabetzat jo dezaten, errudun dela legez eta jendaurreko epaiketan frogatzen ez den bitartean. Epaiketan bere burua zaintzeko berme guztiak ziurtatuko zaizkio.

2. Egintzak edo behar-uzteak izandakoan, herrialdeko edo nazioarteko legeriaren arabera delitu ez baziren, ezingo da inor kondenatu. Delitua egitean ezargarri den zigorra baino larriagorik ere ezingo zaio jarri.

12. atala

Ez dago arrazoirik gabe beste inoren bizitza pribatuan, familian, etxean edo postan eskusartzerik, ezta inoren ohore edo izen onari eraso egiterik ere. Normahik du eskusartze edo eraso horien aurka legezko babesa izateko eskubidea.

13. atala

1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzekoa.

2. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

14. atala

1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.

2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurkako egintzak direla-eta ere.

15. atala

1. Pertsona orok du herritartasuna izateko eskubidea.

2. Inori ezingo zaio arrazoirik gabe herritartasuna kendu, ezta herritartasuna aldatzeko eskubidea ukatu ere.

16. atala

1. Gizonek eta emakumeek, ezkontadinetik aurrera, ezkontzeko eta familia aratzeko eskubidea dute, arraza, herritartasun edo erlijioagatik inolako mugarik gabe; eta, ezkontzari dagokionez, eskubide berberak dituzte bai ezkontuta jarraituz gero eta bai ezkontza-lotura ezabatuz gero ere.
2. Ezkongaien baimen aske eta osoz ez bada, ez dago ezkontzerik.
3. Familia da gizartearen oinarri jatorra eta berezkoa, eta Estatuaren eta gizartearen babesa izateko eskubidea du.

17. atala

1. Pertsona orok du jabe izateko eskubidea, bakarka nahiz taldean.
2. Arrazoirik gabe, ez zaio inori bere jabegoa kenduko.

18. atala

Pertsona orok pentsamendu-kontzientzi eta erlijio-askatasunerako eskubidea du; eskubide horren barne da erlijio edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta baita norbere erlijioa edo sinesmena bakarka nahiz taldean, jendaurrean edo pribatuan irakaskuntzaz, ihardueraz, kultuz eta aginduak gordez azaltzeko askatasuna ere.

19. atala

Gizabanako guztiak dute eritzi-eta adierazpen-askatasuna. Eskubide horrek barne hartzen du erlijioa eta sinismena aldatzeko askatasuna eta bakoitzaren eritziengatik inork ez gogaitzeko eskubidea, ikerketak egitekoa eta informazioa eta eritziak mugarik gabe eta nolana hiko adierazpidez jaso eta zabaltzekoa.

20. atala

1. Normarik du bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea.
2. Inor ezingo da behartu elkarte bateko kide izatera.

21. atala

1. Pertsona orok du bere herrialdeko gobernuan parte hartzeko eskubidea, zuzenean nahiz libre aukeratutako ordezkarien bitartez.
2. Pertsona orok du berdintasunez norbere herrialdeko funtzio publikoan sartzeko eskubidea.
3. Herriaren borondatea da botere publikoaren agintearen oinarria; borondate hori aldi-aldi egingo diren benetako hauteskundeetan adieraziko da. Hauteskundeok bozketa orokor eta berdinez eta isilpeko boto bidez egingo dira, edo boto askatasuna bermatzen duen beste bide batez.

22. atala

Pertsona orok du, gizarteko kide denez gero, gizarte-segurantza izateko eskubidea eta, herrialdearen ahaleginaz eta nazioarteko laguntzaz, Estatu bakoitzaren antolaketa eta baliabideak kontuan izanik, norbanakoaren duintasunerako eta nortasuna garatzeko ezinbestekoak diren ekonomi, gizarte eta kultura mailako eskubideak asetuta izatekoa.

23. atala

1. Pertsona orok du lan egiteko eskubidea, lana aukeratzekoa, lanbaldintza bidezkoak eta egokiak izatekoa, eta langabeziaren aurkako laguntza jasotzekoa.

2. Pertsona orok du, bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari berbera jasotzeko eskubidea.

3. Lanean ari denak bidezko lan-saria eta aski zaiona jasotzeko eskubidea du, bai bera eta bai bere familia, giza duintasunari dagokion bezala bizitzeko bestekoa. Horretarako aski ez bada lansaria, gizarteko laguntzaren bidez osatuko da.

4. Pertsona orok du, norbere interesen alde egiteko, sindikatuak eratu eta sindikatuko kide izateko eskubidea.

24. atala

Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian-aldian ordaindutako oporrak izatekoa.

25. atala

1. Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, medikusorospena eta gizarte-zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere.

2. Amek eta haurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

26. atala

Pertsona orok du hezkuntza-eskubidea. Hezkuntza dohainekoa izango da oinarrizko ikasketei dagokienez behintzat. Oinarrizko ikasketak egitea derrigorrezkoa izango da; heziketa teknikoa eta lanbiderakoa, orokorra; eta denek izango dute goimailako ikasketak egiteko aukera bera, norberaren merezimenduen arabera.

Hezkuntzaren helburua giza nortasuna guztiz garatzea izango da eta giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua indartzea; herrialde, arraza eta erlijio guztien arteko elkar-ulertze, jasankortasun eta adiskidetasunaren alde egingo du; eta Nazio Batuen iharduna bultzatuko du, bakeak iraun dezan.

Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dute seme-alabei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko.

27. atala

1. Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzi aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko.

2. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egille diren pertsona guztiak dute horregatik eskubidea dagozkien interesak eta materialak babes dakizkien eskubidea.

28. atala

Pertsona guztiei dagokien eskubidea da, Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte mailako eta nazioarteko ordena ezar dadin.

29. atala

1. Pertsona orok komunitatearekiko betebeharrak ere baditu, komunitatea baita bere norotasuna guztiz eta era askean garatzeko toki bakarra.

2. Pertsona orok, gainontzeko herritarren eskubide eta askatasunen begirunea ziurtatzeko eta gizarte demokratiko bateko moral, ordena publiko eta ongizate orokorreko bidezko eskakizunak betetzeko lege ezar daitezkeen mugak baino ez ditu izango dagozkion eskubide eta askatasunez baliatzeko orduan.

3. Eskubide eta askatasun hauetaz ezingo da inor baliatu Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurka.

30. atala

Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatze ekintzak edo ihardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.

UMEAREN ESKUBIDEEI BURUZKO KONBENTZIOA

Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1989ko azaroaren 20an onartua. Xedapen nagusien laburpena (Unicef Espainia).

1. Artikulua: Umearen definizioa

Ume bezala definitzen da gizaki oro bere jaiotzatik hasi eta 18 urte bete arte, adin hori baino lehenago adin-nagusitasuna lortzen ez badu behintzat.

2. Artikulua: Diskriminaziorik ez

Eskubide guztiak ume guztiei aplikatu behar zaizkie, inolako salbuespenik gabe, eta Estatuaren obligazioa da umea era guztietako diskriminazioetatik babesteko beharrezko neurriak hartzea.

3. Artikulua: Umearen interesak lehentasuna dauka

Umeari buruzko neurri guztien oinarrian, haurren interesak lehentasuna duela hartu behar da kontuan. Estatuari dagokio babes eta zaintza egokia ziurtatzea, gurasoek edota beste pertsona arduradunek horretarako gaitasunik ez dutenean.

4. Artikulua: Eskubideen aplikazioa

Estatuaren obligazioa da Konbentzio honetan onartutako eskubide guztiak eraginkorrak izan daitezen beharrezko neurriak hartzea.

5. Artikulua: Gurasoen gidaritza eta orientazioa

Estatuaren obligazioa da gurasoek eta baita familiartekoek ere umeari bere dhalmen eta gaitasunen eboluzioarekin batera doan orientazio emateko dituzten erantzukizuna eta eskubideak errespetatzea.

6. Artikulua: Bizi-iraupena eta garapena

Ume orok du bizitzeko eskubide intrintsekoa eta Estatuaren obligazioa da umearen bizi-iraupena eta garapena garantizatzea.

7. Artikulua: Izena eta nazionalitatea

Ume orok dauka jaiotzatik beretik izena edukitzeko eta baita nazionalitate bat lortzeko eskubidea ere.

8. Artikulua: Identitatea gordetzea

Estatua behartua dago umearen identitatea babestera eta, behar izanez gero, berrezartzera, baldin eta umeari identitate horren zati bat edo bere osagai guztiak (izena, nazionalitatea eta famili mailako loturak) kendu izan balitzaizkio.

9. Artikulua: Gurasoen banantzea

Umearen eskubidea da bere gurasoekin bizitzea, banantzea umearen beraren interes gorenerako beharrezkoa gertatzen den kasuetan izan ezik. Umearen eskubidea da guraso biek zuzeneko harremana edukitzea, horietako batengandik edo baita biengandik ere banandua edo apartatua egonez gero. Estatuari dagokio alderdi honen erantzule izatea, banantzea berorren ekintza batek eragina gertatzen den kasuan.

10. Artikulua: Familia berriro elkartzea

Umeen eta baita berorien gurasoen eskubidea da atzerriko edozein herritatik irtetea eta bakoitzaren herrialdean sartzea, beti ere familia berriro elkartzeko edota gurasoen eta seme-alaben arteko harremana mantentzeko.

11. Artikulua: Erretentzio eta traslado ez-zilegiak

Estatuaren obligazioa da traslado ez-zilegien kontra eta umeak atzerrian zilegi ez den moduan erretentitzearen kontra borrokatzeko beharrezko neurriak hartzea, bai hori egiten duena gurasoetako bat denean, edo baita hirugarren pertsona batek egiten duenean ere.

12. Artikulua: Umearen iritzia

Umeak bere iritzia adierazteko eskubidea dauka, eta baita iritzi hori kontuan hartua izateko eskubidea ere, haurrari dagozkion arazo guztietan.

13. Artikulua: Adierazpen-askatasuna

Ume orok du era guztietako ideiak eta informazioak bilatu, jaso eta hedatzeko eskubidea, beti ere hori egiten duenean beste batzuen eskubidearen kalterako ez baldin bada.

14. Artikulua: Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio-askatasuna

Umeak pentsamendu, kontzientzia eta erlijio-askatasunerako eskubide osoa dauka, bere gurasoen gidaritzapean eta legeak ezarritako agindu eta mugen barruan noski.

15. Artikulua: Elkartzeko askatasuna

Ume orok du elkartzeko askatasunaren eskubidea, eta baita bilerak egiteko eskubidea, beti ere hori beste inoren eskubideen kontra ez baldin badao.

16. Artikulua: Bizitza pribatuaren babesa

Edozein umek dauka bere bizitza pribatuan, bere familian, bere helbidean eta bere korrespondentzian beste inork muturrik ez sartzeko eskubidea eta baita bere ohorean erasofua ez izateko eskubidea ere.

17. Artikulua: Informazio egokia jasotzeko eskubidea

Komunikabide sozialek zeregin oso garrantzitsua betetzen dute umei zuzendua dagoen informazioa, helburu bezala haurraren ongizate morala sustatzea duen informazioa, hedatzeko orduan. Herrien elkar-ezagutza eta elkar-ulermena, umearen kultura errespetatuz. Estatuaren obligazioa da puntu honen inguruan neurri sustatzaileak hartzea, eta umea, bere ongizaterako kaltegarria gerta daitekeen informazio eta material orotatik babestea.

18. Artikulua: Gurasoen erantzukizuna

Guraso bien erantzukizunik behinena umeen hazkuntza da eta Estatua beren eginkizun horretan beharrezkoa duten asistentzia ematera behartua dago.

19. Artikulua: Tratu txarren aurkako babesa

Estatuaren obligazioa da gurasoek edo haurren zaintzaz arduratzen den beste edozein pertsonak emandako tratu txarretatik umeak babestea eta horri buruzko neurriak, prebentzio-mailakoak nahiz tratamendukoak ezartzea.

20. Artikulua: Beren famili girotik aldenduak dauden umeen babes

Estatuaren obligazioa da beren famili girotik aldenduak dauden umeei babes berezia eskaintzea, atentzio familiarra ordeztuko duten zaintzen mesedea jasoko dutela ziurtatuz edota etxe edo egoltza egoki baten ezarriak izango direla ziurtatuz, beti ere umearen jatorri kulturala kontuan hartuz.

21. Artikulua: Adopzioa

Adopzioa edo umeordetza ezagutu, onartu eta/edo baimentzen duten Estatuetan, beti ere umearen interes gorenak edukiko du lehentasunezko kontsiderazioa, adopzioa onargarria dela ziurtatzeko beharrezko garantia guztiak bertan biltzen direla segurtatuz, hala nola baita agintari eskudunen baimena ere.

22. Artikulua: Ume errefuxiatuak

Babes berezia eskainiko zaie errefuxiatutzat jotzen diren umeei edota errefuxiatuaren estatutua eskatzen dutenei, eta Estatuaren obligazioa da erakunde eskudunekin lankidetzan aritzea, aipatu babes eta asistentzia hori garantizatzeko.

23. Artikulua: Ume ezinduak

Mentalki edo fisikoki ezinduak diren umeek, beren autoaskitza eta erabateko gizarte-integrazio aktiboa lortzera bideratuak dauden zaintzak, hezkuntza eta trebakuntza bereziak jasotzeko eskubidea daukate.

24. Artikulua: Osasuna eta zerbitzu medikoak

Umeek ahalik eta osasun-mailarik altuena gozatzeko eskubidea dute, zerbitzu medikoetara eta errehabilitazioko zerbitzuetara irispidea edukitzeko eskubideaz gain, arreta berezia jarriz osasunaren lehen mailako atentzioarekin, zaintza prebentiboekin eta haur-hilkortasunaren beherakadarekin zerikusia dutenengan. Estatuaren obligazioa da umearen osasunarentzat kaltegarriak izan daitezkeen usadio eta ohitura tradizionalak desagertzera bideratuak dauden neurri egokiak hartzea.

25. Artikulua: Internamenduaren aldizkako ebaluazioa

Osasun fisiko edo mentalaren atentzio, babes edo tratamendurako agintari eskudunen aginduz internatua izan den umeak bere internamendu hori eragin zuten baldintza eta xehetasun guztien aldizkako berrikuspen eta ebaluazioa egiteko eskubidea dauka.

26. Artikulua: Gizarte-segurantz

Ume orok dauka gizarte-segurantzaren mesedea jasotzeko eskubidea.

27. Artikulua: Bizi-maila

Ume orok dauka bere garapenerako egokia den bizi-maila bat jasotzeko eskubidea eta gurasoen erantzukizun behinenetako bat da hori haurrari eskuratzea. Estatuaren obligazioa da erantzukizun hori asumitua izan dadin neurri egokiak hartzea, eta egiaz asumitua izan dadila egikaritzea, baita janarizko pentsioa ordainduz ere hori beharrezkoa gertatuko balitz.

28. Artikulua: Hezkuntza

Ume orok du hezkuntzarako eskubidea eta Estatuaren obligazioa da gutxienez ere lehen mailako hezkuntza doakoa eta derrigorrezkoa ziurtatzea. Eskolako diziplina aplikatu arren ere umearen duintasuna errespetatu egin beharko da, gizakia den heinean.

29. Artikulua: Hezkuntzaren helburuak

Estatuak onartu behar du hezkuntza umearen nortasuna eta gaitasunak garatzera bideratu behar dela, haurra bizitza heldu aktiborako prestatu ahal izateko, oinarritzko giza eskubideenganako errespetua sustatuz umearengan, eta norberaren balio kultural eta nazional propioenganako nahiz bereaz bestelako zibilizazioenganako errespetua garatuz.

30. Artikulua: Gutxiengoetako edo populazio indigenoetako umeak

Gutxiengo jakin bateko umeek nahiz populazio indigenoetako umeek beren bizitza kultural propioa edukitzeko, beren erlijio berezia praktikatzeko eta beren hizkuntza propioa erabiltzeko eskubidea dute.

31. Artikulua: Aisia, jolasa eta kultur jarduerak

Umeak aisiarako eta jolaserako eskubidea dauka, eta baita jarduera artistiko eta kulturaletan parte hartzeko ere.

32. Artikulua: Adin txikikoen lana

Estatuaren obligazioa da umea bere osasun, hezkuntza edo garapenarentzat kaltegarria gerta daitekeen edozein lan egikaritzetik babestu edo begiratzea; baita enplegu batean onartua izateko gutxieneko adinak ezarri eta berorren baldintzak arautzea ere.

33. Artikulua: Estupefazianteen erabilera eta trafikoa

Umearen eskubidea da estupefazianteen eta substantzia psicotropikoen erabileratik babestua izatea, eta substantzia horien produkzioan edo banaketan nahasiak egon daitezkeen eragozteak.

34. Artikulua: Esplotazio sexuala

Umeak esplotazio eta abusu sexualetatik babestua izateko eskubidea du, eta eskubide horren barruan sartzen dira prostituzioan edota usadio edo praktika pornografikoetan erabiliak izatea.

35. Artikulua: Umeen salmenta, trafikoa eta salerosketa

Estatuaren obligazioa da umeen salmenta, trafikoa eta salerosketa galarazteko eta prebenitzeko beharrezko neurri guztiak hartzea.

36. Artikulua: Bestelako esplotazio-forma batzuk

Umearen eskubidea da 32, 33, 34 eta 35. artikuluetan kontuan hartuak izan ez diren bestelako esplotazio-forma guztien kontrako babesak jasotzea.

37. Artikulua: Tortura eta askatasun-gabetzea

Ezein ume ez da torturatua izango, ezta tratu krudel, anker edo bihotz-gabekorik jasango, heriotza-zigorrik, betirako presoaldirik edota atxilotze nahiz gartzeleratze legez kontrako edo arbitrarioz ezarriko ere. Askatasun-gabetua izan den ume oro gizatasunez tratatua izango da, helduengandik aparte mantendua egongo da, bere familiarekin harremanak edukitzeko eskubidea gordeko du eta asistentzia juridikoa eta bestelako laguntza egokiak berehala eskuratuko zaizkio.

38. Artikulua: Gatazka armatuak

15 urte bete aurretik umeak ezingo du zuzenean inolako liskarretan parte hartu ezta indar armatuek erreklutatua izan ere. Gatazka armatuen eragin eta erasanpean dauden ume guztiek babes eta zaintza bereziak jasotzeko eskubidea daukate.

39. Artikulua: Errekuperazio soziala eta bergizarteratzea

Estatuaren obligazioa da torturaren, gatazka armatuen, abandonuaren, tratu txarren edota esplotazioaren biktima diren umek tratamendu berezia jaso dezaten neurri egokiak hartzea, haur horien errekuperazio soziala eta bergizarteratzea ziurtatzeko.

40. Artikulua: Adin txikikoen justizia administratzea

Akusatua den edozein umek, edota legeak hautsi edo urratzeagatik errudun deklaratu den edozein umek bere oinarriko eskubideak errespetatuak izan daitezen eskubidea dauka, eta batez ere ekitatezko prozedura baten garantia guztiak aprobetxatzeko eskubidea, eta baita bere defentsa prestatu eta aurkeztu ahal izateko asistentzia juridikoa edota bestelako laguntza egokiak edukitzeko eskubidea ere. Posible denean, prozedura judizialetera ez jotzeko eta instituzio berezietan ez internatzeko ahaleginak egingo dira.

41. Artikulua: Indarrean dauden arauen errespetua


Nazioko lege batek edota Estatu horretan indarrean dagoen bestelako nazioarteko xedapen batek ezarritako arau bat Konbentzio honetako xedapen analogoa baino umearentzat faboragarriagoa gertatzen den kasuan, aipatu xedapen edo arau faboragarriago hori aplikatuko da.

Haurren Eskubideen gaineko Deklarazio Unibertsala

Laburbilduta eta modu errazean

1. Berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijioa edo nazionalitatea edozein dela ere.
2. Babes berezi baterako eskubidea, osasuntsu eta libre hazi daitezen fisikoki, mentalki eta sozialki.
3. Izena eta nazionalitatea edukitzeko eskubidea
4. Elikadura, etxebizitza eta medikuen zaintza egokia izateko eskubidea.
5. Fisikoki edo mentalki ezinduak diren haurrek eskubide izan behar dute hezkuntzarako, eta laguntza bereziak eman behar zaizkie.
6. Ulertuak eta maitatuak izateko eskubidea gizartearen eta familiaren aldetik.
7. Hezkuntza doan jasotzeko eskubidea. Dibertitzeko eta jolasteko eskubidea.
8. Arreta eta laguntza eskubidea arrisku kasuetan.
9. Lan-esplotaziotik abestu behar dira haurrak eta ezin dira abandonatu.
10. Solidaritatea, adiskidetasuna eta justizia sustatzen dituen hezkuntza jasotzeko eskubidea dute haurrek.

8. Peters-en Mapa



A ze mapamundi arraroa, ezta? Esan liteke irudia dokumentuan sartzean "desitxuratu" egin dela. Bada ez, mapa ondo dago; izan ere, munduaren itxura ondoen erakusten digun plano da. Orduan, zergatik ikusi ohi dugu zapalago? Normalean Mercator-en Mapa erabiltzen delako.

Mercator-en proiektzioa

Mercator-en mapa 1569. urtean sortu zen; garai hartan marinelek belaz lagundurik zeharkatzen zituzten ozeanoak, egurrezko itsasontzietan, izarrak gidari zituztela. Proiektzio horren arrakasta honela azal daiteke: bertan egindako edozein lerro zuzenek egiazko ibilbidea erakusten du, eta mapan markatutako angeluari itsasorrazaren bidez jarraituz, ondo nabiga daiteke. Herrialdeen itxura egiazkoa da, baina horien azalera berezkoa baino askoz handiagoa da latitude altuetan, Europan eta Iparramerikan, munduko aberastasun osoaren %80 kontzentratzen den herrialdeetan hain zuzen.

Peters-en proiektzioa

Mapa hau Arno Peters historialari eta kartografoak proposatu zuen Alemanian 1974an eta sekulako eztabaida piztu zuen. Peters-en proiektzioa proiektzio zilindrikoa eta konformea zen, Mercator-ena bezala. Baina, aurrekoak ez bezala, matematikoki zuzentzen du altitude altuen distorsioa. Peters-en proiektzioak munduaren **irudi eurozentrikoa** baztertzen du. Eskalak gutxien desitxuratzen dituen proiektzioa da. Dauden proiektzio guztietatik bera egokitzen da ondoen munduaren benetako neurrietara.